

GAIA: ESTONIAKO HEZKUNTZA SISTEMA • ESPERIENTZIAK: ANTZERKI
SOZIALA • EKARPENAK: ESKOLAKO GATAZKAK • GALDEIDAZUE: FEDERICO
MALPICA • BARANDIARAN MUSEOA • ATZEKO ATETIK: REYES ILINTXETA

hh
hik hasi

161

4 EURO • 2011KO URRIA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

David Altimir eta Irene Balaguer

Kataluniako Rosa Sensat elkarteko arduradunak

+ 2-3 urte

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS Kartotzkoak



Lau pertsonaiek beren burua aurkeztuko duten hitz gutxi eta egoera jostagarriez baliatuz.

+8 urte



OIHANA HIRIAN Leire Bilbao

Oihana aitarekin doa hirra: bak-batean, ordea, galdu egiten da, eta hiriko jendea oihaneko piztien txurapean agertzen zaio: lehoiak, zebrek, jirafak, errirozerrontzak...

+5 urte


TXOMINTXO ETA PERUTXO BAKARRIK GERATU DIRA ETXEAN

Peru Magdalena

Txominxo eta Perutxo ansia bikiek etxean bakarrik daudela konturatu dira goizean esnatu direnean. Eta sekulako egonezina sartu zaien. Bena den, dagceneko mudi handiak direla sinetsita daude, eta euren kabuz konpontzen saiatuko dira.



+13 urte



HERIOTZAK Josu Walino


Josu ospitalean igarotzen ari da bere azken egunak, ustez, bere azken egunak izango direnak, gero Herio bisitatzen baitu. Josuk, ordea, ez du hil nahi. Eta saiatzen da zer edo zer asmatzen Herio engainatzeko. Horrenbestez, heriotzari buruzko istorioak kontatuko dizkioite eizkerri gau batean bai eta bestean ere bai.

+13 urte

DESIO IZENENKO TREN BATEAN

Inaki Serrano Lasa

Bi lagun, Inter-rail txartelarekin, Europan zehar bidaiari. Hainbat abentura, pasadizo eta bilxkeren protagonista izango dira, eta umorez kontatuko dituzte horiek denak: batez ere, ligatzeko nahi, gogoc, premia... eta ezina.



HELDU LITERATURARI

www.elkarargitaletxea.com

elkar

aurkibidea



8
gaia

ESTONIAKO HEZKUNTZA SISTEMA

Estoniako kultura ahoz aho transmititu da mendez mende, inguruko nazioen okupazioei aurre eginez. Horren ondorioz, Estoniako kultura oso aberatsa da kantu, olerki eta ipuinetan.



15
elkarrizketa

DAVID ALTIMIR ETA IRENE BALAGUER

Rosa Sensat irakasle eskolak 46 urte daramatza irakasleak prestatzen. Irene Balaguer pedagogo eta Haur Hezkuntzan espezializatua hastapenetatik dabil murgilduta, eta, gaur egun, David Altimirrekin, Josep Fernandez eta Montserrat Ramosekin partekatzen du Rosa Sensateko zuzendaritza.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ESTONIAKO HEZKUNTZA SISTEMA

INDEPENDIZATU BERRI DEN HERRI BATEN HEZKUNTZA SISTEMA

16 elkarrizketa

IRENE BALAGUER ETA DAVID ALTIMIR

24 esperientziak

Antzerki soziala Arantzazun.

26 ekarpenak

Eskolako gatazkak bitartekarien bidez konpontzen.

29 galdeidazue

Nola neurtzen da irakaskuntzaren eta ikasketaren kalitatea?

Federico MALPICA. Bartzelonako Escalaeko zuzendaria

33 berriak

40 nora joango gara?

Barandiaran Museoa. Ataun

42 Atzeko atetik

Reyes Ilintxeta

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urroza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-09-26). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainonerako materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urria

Krisiak eragiten digunean



Sekula baino beharrezkoagoa da hezkuntzan eginiko inbertsioei ahalik eta etekin handiena ateratzea.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE-OCDE) *Hezkuntzaren egoera 2011* txostena aurkeztu berri du.

Erakunde horrek munduko hainbat herrialdetan hezkuntzak herrialde horietako ekonomian, edo beste era batera esanda, herrialde horietako biztanleek duten formazioak herrialde horretako ekonomian duen eragina ikeri du, besteak beste.

Txosten horretako zenbait datu nabarmendu ditu Espainiako gobernuak. Esaterako, espainiar estatuan hezkuntzan inbertitzen den euro bakoitzeko 3,9 euroko mozkin erdiesten dela. Begi bistakoa dirudien ondorioa ere atera dute: hezkuntzako onurak oso handiak dira, norbanakoentzat eta baita jendartearentzat ere.

Mundu ekonomian jarduten duen erakunde horrek argitan utzi du, beraz, jada jende asko esaten ari dena: hezkuntza gastua baino inbertsioa dela.

Ez doaz bide horretatik, ordea, Nafar Gobernua, Eusko Jaurjaritza eta

Frantziako Gobernua Euskal Herriko hezkuntzan hartu dituzten eta hartzeko asmoa duten neurriak. Krisiaren babesean –edo krisiaren aitzakian, akaso–, hainbat murrizketa garrantzitsu egin baituzte jada. Haien artean, langileak murriztea, ikasle kopuruak handitu arren langile kopurua mantentzea eta abar.

Jende andanak desadostasuna erakutsi du neurri horien aurka. Motibazio desberdinak izan arren, mundu mailako erakunde horrek ere adierazi du egin dituzten ikerketek zer dioten, hezkuntzak ekonomiaren suspertzean izan dezakeen eraginaz.

Askotan esan dugu hezkuntzak ezin duela jendartetik at egon. Jendar-tean eragiten duten arazoak ere badirela eskolaren arazoak. Beraz, sekula baino behar handiagoz, dagoen diruari ahalik eta etekin handiena ateratzeko erronka dugu.

Lehenik eta behin, behar den inbertsioa eginez, hezkuntzarako aurrekontuetan dauden idazpenak ongi az-

tertu behar dira eta bakoitzari esleitzen zaion kopurua berraztertu beharko litzateke. Hori guztia, lehentasunak ongi finkatze aldera eta garrantzitsuak izanik ere behar-beharrezkoak ez direnak garai oparoagoetarako uzte aldera.

Jokatzeko era horrek hezkuntzan funtsezkoa eta garrantzitsua zer den hausnartzera eramango liguke, hezkuntzaren oinarri-oinarrietara jotzea.

Krisia bere iluntasunean eta bere zorigaitzean aukera bihur dakiguke. Hezkuntzan egindako inbertsioari etekin handiena ateratzeko munduan eta Euskal Herrian zehar emaitza onak eman dituzten ekimenak abian jarri beharko liriateke: gertuko gestioak eta udalen parte hartzeak, eskola protagonista izatea bere Hezkuntza Proiektuan. Proiektu horretatik abiatuta eta zentroei autonomia gehiago emanez, bertako langile talde iraunkorrak inork baino hobeto jakingo du beharrak non dauden eta nola inbertitu iristen den dirua modurik hoberenean. Hor legoke, zalantzarik gabe, benetako aurrezkia.

kronika

Hasi da 2011-2012 ikasturtea. Euskal Herriko eskoletan arituko diren ikasle kopurua, 500 bat milakoa da. Ikasle kopurua, urtez urte, etengabe hazten ari da. Ez, ordea, ikasle horien heziketa beharrei erantzuna emango dieten langile kopurua ezta baliabideak ere. Krisia kjo omen ditu hezkuntzako ateak, eta ikasturte berriaren hasierarekin, murrizketa kontuak dira Euskal Herriko eskola guztietan zabaldu diren kontuak. Murrizketa oihartzunek berdindu dituzte sare, herrialde eta maila guztiak. Neurri desberdinak izan badira ere, guztiak harrapatu baitituzte. Kontuak kontu, gure ikasleek bete dituzte ikasgelak eta dauden bitartekoeekin haien heziketa premiei erantzutea izango da aurtengo ikasturtearen benetako erronka.



Murrizketen aurka greba Nafarroako irakasleek deituta

Greba eguna izango da irailaren 27koa Nafarroako Hezkuntza Publikoan, Nafarroako Gobernuak egin dituen eta egin nahi dituen murrizketen aurka protesta egiteko. Ikasturtea hasi zenetik, hainbat bilera egin dituzte irakasleek eta ikastetxeetako ordezkariak eta hainbat neurriren artean greba egitea adostu dute ordezkariak duten bederatziko sindikatuak: Afapna, ANPE, APS, CCOO, CSIF, ELA, EILAS, LAB eta UGT.

Institutuko irakasleei astean eskola ordu bat gehiago jarri diete, 17tik 18ra pasatuz. Ondorioz, 200 irakasle gutxiago kontratatu dituzte. Gainera, ordezkariak betetzeko aldaketak egin dituztela salatu dute hezkuntzako eragileek. Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza

kontseilariak aditzera eman zuenez, ordezkariak lanera joan gabe 15 egun pasa ondoren egingo dira. Sindikatuen, ikastetxeetako zuzendaritzaren eta familien aldarrikapenei esker Iribasek zuzendu egin behar izan zuen neurria. Hala ere, zenbait ikastetxeetan irakasleak falta dituztela hasi behar izan dute ikasturtea. Irakasleek agertu duten kezkararekin bat egin dute Herrikoa eta Sortzen guraso elkarteak, besteen artean. Irakasleei beren elkartasuna azaltzeaz gain, haiekin mobilizazioetan parte hartuko dutela adierazi dute.

Irakasleek, sindikatuak, zuzendariak eta gurasoak dituzten kezkak uxatzera etorri da Iribas, ordea. Harek esan duenez “Nafarroako hezkuntzaren kalitatea bikaina da, eta hala izaten jarraituko du. Izan daitezkeen gorabeherek ez dute inolaz ere kaskartuko hezkuntza sistemak ematen duen zerbitzuaren kalitatea”.

Egoera nahasi horren aurrean Iribasek azpimarratu du ere zein den bere lehentasuna “Hezkuntza sisteman eleantitasuna ahalik eta gehien garatzea dugu helburu”, atzeriko hezkuntzetan eskolak eman ditzaketan irakasleak lortzen saiatuko dela gaineratu duela.

**"Ikasle nintzelarik, gutariko onenak zientzieta-
ra, irakaskuntzara, humanitateetara edo senda-
kuntzara bideratzen ziren. Bere ahaleginei esker
mundua aldatu nahi zuten. Orain, ikasle onenak
finantza mundura lerrokatuta ikusten ditut. Dirua
barra-barra irabazteari uko egin ezinean"**

Joseph E. Stiglitz



Lapurdi, Nafarroa Behe- rea eta Zuberoako murriz- ketak eta erronkak

Irailaren 27a greba eguna izango da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikastetxeetan. Nafarroako eskola publikoekin eta Frantziako beste eskolekin batera egingo dute greba. Frantziako irakaskuntza publikoko eta pribatuko sindikatuek eta ikastoletako langileek egin dute deia. Irakasle postuak murriztea, 30 ikasletik gorako gelak osatu behar izatea, 3 urtetik beherako haurrak eskolatzeko eragozpenak eta abar dira, besteak beste, protesta egiteko arrazoiak. Gobernuak, bere aldetik, murrizketak zuritu eta langileei eskatu die egiteko gehiago gutxiagorekin.

Bestalde, Ikas Bik, hezkuntza elebiduneko gurasoen elkarteak, ez du izen-

petuko Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) hitzarmena, eta, ondorioz, ez ditu jasoko bertan esleitu zaizkion 20.000 euroko diru laguntzak. Arrazoiak, euskalduntze prozesuan gazteak badira helburua, EEPk Hezkuntza Ministerioaren irizpideei men eginez huts egin izana izan da, Ikas Biren iritziz.

Kexu dira, era berean, ahalmen urria duten haurren senideak. Salatu dutenez, ikasturtea hasi bada ere, behar bereziak dituzten 20-25 haurrei ez diete laguntzailerik ezarri. Haur horiek, beraz, ikasturtea jarraitu ezinean daude eskolatzeko eskubidea ez zaielarik bermatu. Hori dela eta, zazpi familia gaia e-pai bidean jartzekotan dira.

Seaskak, berriz, iaz baino 152 ikasle gehiago ditu eta ikasturte amaierarako 3.000 ikasle izango dituztela aurreikusitako dute. Ikasle berri horiei denei erantzun ahal izateko, joan den udaberriko manifestazioaren ondoren, Frantziako Hezkuntza Ministerioak 1,25 irakasle postu gehiago eman dio Seaskari; hala ere, 18 irakasle geratuko dira Seaskaren gain. Aurtengo dituzten erronken artean, euskalduntze prozesuari begira bi urteko haurren eskolatzeta eta Baxoa euskaraz pasatzeko eskubidea mahai gainean izatea izango dira.

Inguruko gobernuen biderei ez diola jarraitu adierazi du Isabel Zelaak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak; beraz, ez duela murrizketarik egin ikastetxe publikoetan, eta ez dituela egingo. Horrez gain, gaineratu du, hezkuntzara bideratutako diru kopurua mantentzearen aldekoa dela. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan arituko diren ikasleak iaz baino 9.000 inguru gehiago izango dira. Sindikatuek salatu dutenez, ordea, Hezkuntza Sailak ezingo ditu ordezkapen kontratuak egin, ikastetxe publikoetan lanpostuak hartzeko garaian arazoak izan dira eta ikastoletan sortu diren gela berriak ez ditu itunpean hartu. Heldu den ikasturterako dituzten erronka nagusienak: Hiru eleko ereduaren alde egiten jarraitzea, teknologia berriak sustatzea Eskola 2.0 egitasmoarekin batera eta "memoriaren kutxa" bilakatu nahi duen Bakerako Hezkuntza planarekin jarraitzea, bizikidetzaren balioetan, terrorismoaren deslegitimizazioan eta biktimizekiko enpatia sustatze lanari segida emanez.

GAIA

Estoniako Hezkuntza Sistema

Independentzia lortu berri duen herri baten

Hezkuntza Sistema ezagutuz





Hik Hasik Tallinnera bisita egin du *Infancia* aldizkarikoekin Estoniako Hezkuntza Sistema ezagutzeko; batetik, independentzia lortu berri duen (1991n) herrialdea delako, eta, bestetik, hizkuntza berreskuratzeko eskoletan lan handia ari direlako egiten.

Euskal Herria halako bi da hedaduraz Estonia, 45.000 km karratu baititu; aldiz, Euskal Herriko biztanleen erdia du, 1.374.510. Tallinn hiriburuan bizi da estoniarren herena, 403.000 herritar. Beste herrialde baltikoetako herritarrak ez bezala, etnikoki eta linguistikoki finlandiarraren senide da estoniarra, eta harreman kultural handia du Eskandinaviarekin.

Estoniako kultura ahoz aho transmititu da mendez mende, inguruko nazioen okupazioei aurre eginez. Horren ondorioz, Estoniako kultura oso aberatsa da kantu, olerki eta ipuinetan.

Estonia: historikoki hezkuntzari garrantzi handia eman dion herrialdea

Oso atzera egin behar da Estoniako hezkuntza-sistemaren hastapenetara iristeko, XIII. mendean, lehen eskolak sortu zirenean, hasi baitzen hezkuntza formalaren historia Estonian. Alemaniaren eta daniar feudoen mende zegoen orduan Estonia. Beraz, hezkuntza-sistemak ere gorabehera historikoei jarraitu die: orain, Finlandiaren mendeko izanez; gero, Suediaren menpeko, eta Alemaniaren, Errusiaren eta abarren mendeko hurrena. Hala ere, hezkuntza jasotzeak berebiziko garrantzia izan du estoniarrentzat. Estoniako lehen unibertsitatea, hau da, Tartuko Unibertsitatea, 1632an sortu zen; XVIII. mende bukaeran, hiru estoniarretik bik bazekiten irakurtzen; eta 1881eko erroldaren arabera, estoniarren % 90 alfabetatua zen.

Orain, independentzia lortu ondoren, bi helburu nagusi ditu Estoniako hezkuntza-sistemak: bata, haur guztiak eskolatzea; eta, bestea, beste ama-hizkuntza bat duten haur guztiak estoniarara ekartzea.

Estonian, hezkuntza-sistema eta

hizkuntza oso lotuta daude, eta ez gaur egun, independentziaren aroan, soilik; lehenago, 1940tik 1990era bitarteko sobietarren okupazio garaian, eskolek borroka handiak egin zituzten hezkuntza estonieraz garatu ahal izateko, Errusiak errusiera ezarri baitzuen hezkuntzan hizkuntza gisa. Gaur egun, Estonian, errusiarren komunitatea gutxiengo garrantzitsua da, herritarren % 26 da errusiarra; Tallinn hiriburuan, aldiz, herritarren erdia da errusiarra.


Herrialde subiranoa denetik, estoniera da errepublika baltiko horretako hizkuntza ofizial bakarra, eta baita eskolako hizkuntza ere. Derrigorrezko hezkuntzan (7-17 urte), % 60, gutxienez, estonieraz irakatsi behar dute; eta, horrela, batxilergoa eta unibertsitatea estoniera hizkuntzaz ikasi ahal izango dituzte. Eskoletako bigarren hizkuntza errusiera da.

Hizkuntza berreskuratzeko, eskola egiten ari den lanak erakarrita, *Hik Hasik* bidaiaria egin du Tallinnera, hango hezkuntza-sistema gertutik ezagutzeko helburuarekin.



G

Estonian Education System





Hezkuntza-sistemaren antolaketa: udala gertu duten ikastetxeak

Estonian, derrigorrezko hezkuntza 7 urterekin hasten da, eta 9 ikasturte hartzen ditu: ikasleek eskolan egon behar dute 17 urte bete arte. Estoniako Hezkuntza Sistemak Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Hezkuntza, Goi Mailako Hezkuntza eta Helduen Hezkuntza hartzen ditu bere gain. Ikastetxe gehienak estatuko gobernuak edo udal gobernuak sortuak dira, eta bakan batzuk kapital pribatuarekin. Estatuko hezkuntza ministerioak ezartzen ditu ildo nagusiak: nortasunaren, familiaren eta estoniar nazioaren garapena bultzatuko duten baldintza egokiak sortzea; Estoniako kultura, politika, ekonomia eta gutxiengo etnikoen garapena bultzatzea; herri-tartasun balioak irakastea; eta, azkenik, bizitza guztiko ikasketa-tradizio nazionala sortzeko baldintzak eskaintzea. Alabaina, udal bakoitzak bere hezkuntza-batzordea du, eta bere hezkuntza-politika garatzeko eskumena du.

Urte eta erditik (18 hilabete) aurrera eskolatu daitezke haurrak, urte eta erditik 7 urtera bitartekoak baitira haureskolak. 3 urtera bitartean, haurtzaindegietan egoten dira haurrak gaur egun. Duela gutxi arte, aldiz, amarekin eta etxean egon ohi ziren seme-alabak, amei lanpostua gorde egiten baitzitzaizen eta ia soldata osoa kobratzen baitzuten. Aldiz, krisiaren ondorioz, amatasun-baimena eta lan-utzialdiatarako baldintzak okertu egin dira: haurrak 3



urte egin arte gordetzen zaio amari lanpostua, baina diru-sarrerak ia erdiraino jaisten dizkio estatuko ministerioak gaur egun. Datuetan, agerikoa da krisiaren eragina: 2003an, 15.698 haur zeuden eskolatuta Tallinn hiriburuan; iaz, aldiz, 21.512. Zazpi urtean ia % 40 igo da, beraz, eskolatutako haurren kopurua.

Haur-eskolen kasuan, ikasle bakoitzeko diru-kopuru bat ematen dio udalak ikastetxeari, izan publikoa nahiz pribatua. Gaur egun, esate baterako, Tallinnen ikasle bakoitzeko 1.279 euro ematen dizkie udalak haur-eskolei. Horrez gain, gurasoek 22 euro ordaintzen dituzte hilean ikasle bakoitzeko. Eskolan jaten duten egun bakoitzeko (3 otordubero egunean) 1,6 euro. Udalak ematen duen diru-kopuru horrekin eta gurasoek hileroko ordaintzen du-

ten kuotarekin, langileei ordaindu egiten zaie eta eskolako mantentze-lanak egiten dira.

1,5 urtetik 3 urtera bitarteko geletan 14 haur egoten dira bi hezitzaileekin, eta, beharren arabera, beste bi edo lau haur ere har ditzake gela bakoitzak. Talde bakoitzean, irakasle bat eta zerbizuko langile bat egongo dira haur eskoletan. Alabaina, 14 haur horietatik erdiak inguru joaten dira egunero eskolara, haurren batez besteko asistentzia % 50ekoa baita. 3-7 urte bitartean, berriz, 24 haurrek osatzen dute gela, eta haur horiek ere bi hezitzaileekin egoten dira.

Haur-eskola bakoitzak bere norabidea zehatz dezakeen arren, oro har Estoniako haur eskolek eta, bereziki, *Hik Hasi* Tallinnen bisitaturikoek ezaugarri komun batzuk dituzte. Haur

Jolasaren garrantzia



bakoitzaren nortasunaren errespetuan oinarritzen da hezkuntza-sistema txiki-txikitatik, eta ikasketa jolasean eta haurren arteko elkarbizitza demokratikoan oinarritzen da. Hezitzaileez gain, psikomotrizitateko, musikako eta logopediako espezialistak daude ikastetxeetan, eta, haurren hezkuntzaren arduradun, hezitzaile horiek guztiak eta, noski, familiak direla onartzen da. Ondorioz, eskolaren eta familiaren arteko harreman estua lantzen da haur-eskoletan. Gurasoei erraztasunak emateko, gainera, haur-eskolak goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara egoten dira irekita, nahiz eta eskola-orduak, formalki, 9etan hasten diren, eta arratsaldeko 5etan amaitzen diren. Horrez gain, lanagatik edo beharragatik haurra gauez etxean izan ezin duten gurasoentzat, gaueko zaintza duten eskolak ere badaude; Tallinnen, esate baterako, horrelako hiru ikastetxe daude.

Behar bereziak dituzten haurrentzat ikastetxe bereziak daude estatu osoan, baina, gurasoek hala erabakiz gero, ikastetxe arruntetara ere eraman ditzakete haurrak. Tallinnen, adibidez, behar bereziak dituzten haurrentzat bi eskola daude, baina gurasoek hiriko beste 13 eskoletan ere matrikula dezakete haurra, behar arruntak dituzten hiru ikasleko behar bereziko haur bat onartzen baitute eskolek.

Jolasaren garrantziaz

Ildo pedagogikoari dagokionez, eskola bakoitzak erabakitzen du bere ildo, baina badira Estoniako eskoletan nagusitu diren pedagogo batzuk: Maria Montessori, Loris Malaguzzi (Regio Emilia) eta Johannes Kais estoniarra (1900). Kaisen ildo pedagogikoaren funtsak bi dira: inguruarekin harreman integrala bideratzea, eta jolasa ikasketaren oinarri gisa erabiltzea.

Jolasak presentzia berezia du haur-eskoletan, haurren heziketarako funtsezko baliabidetzat hartzen baita. Eguzker, ordu eta erdiz kanpoan jolasten dira haurrak, eta udaberrian eta udazkenean, egunak luzeagoak direnean, ordu eta erdiko bi saio egiten dituzte kanpoan. Eskolak, alabaina, ez dira edukiak transmititzeko zentroak bakarrik: haurrek egunean hiru jatordu bero izaten dituzte ikastetxean, 9:00etan, 12:00etan eta 15:30ean, eta, bazkaldu ondoren, 7 urte bitarteko ume guztiak

ordu eta erdiko edo bi orduko lo-kuluxka egiten dute. Ikusi bezala, eskolak lotura handia du osasunarekin, eta haurren jolasaz, loaz, eta otorduez gain, garrantzi handia ematen diote ariketa fisikoari ere; Estonian neguan hotz handia egiten duenez, izerdia botatzeko saunak erabiltzen dituzte ikasle guztiak: 18 hilabetetik 3 urtera bitarteko haurrek 10 minutu igarotzen dituzte 60 graduko saunan; eta 3-7 urte bitartekoek, berriz, 20 minutu, 65 graduko saunan. Osasunarekin lotuta, botika-kutxa izaten dute gela guztietan, eta erizain bat dago eskolako.

Jolasaz gain, gaur egungo ikasketaplana lau zutabetan oinarritzen da: jolasa, sormena, ingurumena eta kultura. Estoniako kulturaren transmisiorako tresna garrantzitsuak dira eskolak, bai hizkuntza biziberritzeko eta irakasteko, bai kultura bera transmititzeko ere, batik bat ahozko kultura.





Irakasleen lana

18 hilabetetik 17 urtera bitarteko ikasleekin irakasle izateko, gradu-mailako ikasketak egin behar dituzte irakasleak, hau da, unibertsitateko lau urteko karrera. Lau ikasturte horietan, 11 asteko praktikak egiten dituzte eskoletan. Bestalde, ikastetxeko zuzendari izateko, lau urteko karreraz gain, graduako masterra eduki behar dute hautagaiak. Ondoren, bi urtetik behin ebaluazio bat gainditu behar du ikastetxeko zuzendariak, eta segidako bi ebaluazio gainditzen ez baditu, lanpostua utzi egin behar du, eta beste norbait sartuko da haren ordez. Irakasle guztiek bost urtetik behin etengabeko prestakuntzan parte hartu beharra dute. Horrez gain, irakasle guztiek eskola barruko ebaluazioa izaten dute urterotero, eta, horretarako, ebaluazio-irizpideak eta tresnak jarriak ditu hezkuntza ministerioak 2006tik; eta hiru urtetik behin, eskolaz kanpoko ebaluazioa izaten dute. Zuzendaritzaren eta irakasle nahiz langileen ebaluazioaz gain, eskola-giroko elkarlana, administrazioaren lana (bereziki aurrekontuak) eta proiektu pedagogikoak ebaluatzen dira urtero.

Ebaluazioaz gain, sariketa ugari hartzen dute parte irakasleek zein eskolek, batik bat udalek bideratuta, irakasleen eta langileen lana sustatzeko, ezagutarazteko eta biziagotzeko.

Lanpostuak esleitzeko garaian, zuzendaria aukeratzetik hasten da prozesua. Zuzendari posturako dei publikoa

jasotzen dute Pedagogiako ikasketez gain zuzendari izateko masterra egina duten irakasleek. Zuzendaria aukeratzeko denean, kontratu mugagabea egiten zaio, eta zuzendari horrek behar dituen irakasleak eta gainerako langileak aukeratu ditu, udal ordezkariaren, arduradun pedagogikoaren, irakasleen ordezkariaren eta gurasoen ordezkariaren laguntzarekin. Ordezkari horiek guztiek osatzen dute hezkuntzako udal-batzordea. Irakasleak aukeratu, haiei ere behin betiko kontratua egingo zaie. Lanpostuen esleipen-sistema berdina da sare publikoko zentroetan nahiz pribatukoetan. Ikastetxe berrien kasuan, esate baterako, herri edo hiri bakoitzeko udalak bideratzen du esleipena.

Irakasleen oinarriko soldata 750 eurokoa da, Estoniako batez besteko soldata baino 100 euro baxuagoa. Haatik, lanean bost urte egin ondoren, hobekuntza ekonomikoak lor ditzakete irakasleek. Errepublikan horretan, estatuko gutxieneko irabazia 300 eurokoa da.

Semea edo alaba 18 hilabeterekin haur-eskolara ez eramatea eta etxean heztea erabakitzen duten gurasoei haur-zaintzako ikasketak eginda dituzten hezitzaileak aukeratzeko aholkatzen zaie. Pedagogia, psikologia, gizarte-lan, osasun eta segurtasun arloetako irakasgaietan 160 orduko ikasketak egiten dituzte hezitzaile horiek.

Derrigorrezko hezkuntza

2006az geroztik, 601 ikastetxe daude Estonian; horietako 85 haur-eskolak dira (escuela primari); 264, oinarriko hezkuntzakoak; 236, derrigorrezko bigarren hezkuntzakoak; eta 16, helduentzako derrigorrezko bigarren hezkuntzakoak. Hezkuntza bereziko ikas-

tetxeak eta ofizio-eskolak gehitu behar zaizkie horiei.

Haur gehienak 18 hilabeterekin eskolatzen dituzten arren, derrigorrezko hezkuntza 7 urterekin hasten da errepublikan baltiko horretan, eta 17 urte bitarteko ikasketak egin behar dituzte. Oinarriko hezkuntzak bederatzimaila ditu, eta Estatuak eta Udalgobernaldiak finantzatu dute. Oinarriko hezkuntzako bederatzimaila horiek egin ondoren, derrigorrezko bigarren hezkuntzara joaten dira gaztetxoak, eta, batxilergo ikasketak amaitzeko, beste hiru ikasturte egin behar dituzte. Derrigorrezko ikasketak amaitu dituzten ikasleentatik %72k aukeratu du batxilerra; eta ondoren, batxilerra amaitu duten ikasleentatik %70 unibertsitateara joaten da, eta %28k lanbide heziketaren alde egiten du. Aldiz, derrigorrezko hezkuntza amaitu dutenen artean, gainerakoak, %28k, lanbide heziketa egiten du, horretarako estatu osoan dauden 48 ikastetxeetan. Azken 8 urteetan indartu da bereziki lanbide heziketa, ikastetxe publikoen zein pribatuen arteko sareak eginez eta irakasgaiak elkarren artean osatuz. Lanbide heziketako ikastetxez gain, derrigorrezko hezkuntza amaitzeko zailtasunak dituzten ikasleei bideraturiko 80 ofizio-eskola daude Tallinnen.

Derrigorrezko hezkuntzan, haur eskoletan bezala, hezkuntza-ministerioak hainbat ildo eta bete beharreko gutxiengo batzuk zehazten ditu, baina zentro bakoitzak aukeratu du curriculumetik kanpo zer ikasketak landu nahi dituen, eta baita curriculumeko zer ikasketak indartu nahi dituen ere. Irakasle estatutik datozen hiru azterketa gainditu behar dituzte, derrigorrezko bigarren hezkuntzako diploma jaso ahal izateko.

Estoniako ikastetxeetan

Osasunari berebiziko garrantzia ematen zaio



Estoniako Haur Eskolako ikasle baten eskolako ordutegia, gutxi gorabehera, honelakoxea izango litzateke:

- Eskolara iristerakoan, etxetik dartzaten oinetakoak kendu eta eskolan egoteko zapatilak jantzen dituzte ikasgela bakoitzak sarreran duen aldagelan.

- Behin ikasgelan daudela, hainbat txoko dituzte bakarka ala ikaskideekin aritzeko.

- 9:00etan, lehen janari beroa eskaintzen zaie.

- Gosaltzen amaitzen duten heinean, aukeratzen dituzten txokoetan aritzen dira.

- Ondoren, txokoetan jarraitzen dute, edo, denon arteko ekintzaren bat egiten dute (ariketak, hizkuntza...).

- 10:15ean, kaleko oinetakoak jantzi eta behar den gisara jantzita (hotza ala beroa egiten duen) kalera joaten dira. Izan ere, ikastetxe bakoitzak jolastoki handia du bere inguruan, ongi prestatua eta inguratua.

- 11:45ean, ikastetxera itzultzen dira. Behar diren jantziak aldatu, eskuak eta oinak ongi garbitu, lehortu eta bazkaltzeko prestatzen dira.

- 12:00etan, bigarren janari beroa eskaintzen zaie.

- Bazkalostean, ordu eta erdiko edo bi orduko lokuluxka egiten dute.

- Esnatzen doazen heinean, ikasgelako txokoetara joaten dira jolastera.

- 14:00etan, txokoetako edota taldekolana egiten dute. Uda aldean, egunak epelagoak direnez, kaleko beste ordu eta erdiko saioa egitera doaz. Negan, berriz, astean behin edo bitan sauna (izerdia isuritzeko) edo pizsinako saioak dituzte.

- 16:00etan, hirugarren janari beroa egin eta etxera joateko prestatzen dira.

- Jasotzera datoz etxeak eta 17:00etarako denak joanda daude.



Barruko espazioak



Kanpoko espazioak



Irene Balaguer David Altimir

EL KARRIZKETA

Associació de mestres Rosa Sensat-eko arduradunak

“Pedagogiako aurrerapauso handienak araudiak hautsiz egin dira”



irene balaguer david altimir

E

“Konfiantza handia geneukan demokrazian, eta pentsatu genuen ez zela mugimendu sozialik behar... Gero eta demokrazia gehiago, orduan eta mugimendu sozial handiagoa behar da, parte-hartzea areagotu egin behar da... Sarri esan behar izaten dugu, neurri eta araudiak demokratikoki egin eta onartu diren arren, ez daudela haurren mesedetan eginak. Horrelakoen aurka, beti aurkituko gaituzte gu.”

Rosa Sensat irakasle eskolak 46 urte daramatza irakasleak prestatzen. Irene Balaguer pedagogo eta Haur Hezkuntzan espezializatua hastapenetik dabil murgilduta irakaskuntza berritzeko proiektuan, eta, gaur egun, David Altimirrekin eta Josep Fernandez eta Montserrat Ramosekin partekatzen du Rosa Sensateko zuzendaritza. Altimir jaiotzen zenerako, urteak zeramatzan lanean elkarrekin. Bi kideek hartu dute *Hik Hasi* Bartzelonako erdigunean duten eraikinaren bulegoetan, hezkuntzari buruz gogoz eta ilusioz beterik mintzatzeko prest. “Eskolara joan eta haurrekin ikasteko estimulak umore oneko jaikiarazten gaitu”, dio Balaguerrek, irribarrez.

Irakasleen elkarte honek 2.000 bazkideetik gora biltzen ditu, eta 500 kide egiten dute lan boluntario gisara. Batzar eta lan batzordeetan biltzen dira, eta batzar horiek aukeratzen dituzte zuzendaritzako 16 kideak. Horiez gain, 30 langile dauzka elkarrekin.



Nola dago Rosa Sensat, 46 urteren ondoren?

David Altimir: Orain, inoiz baino gehiago, Rosa Sensat esperantza bat da, gure ofizioarekiko berriro ilusioa bilatzen lagunduko digun elkarte bat. Hezkuntza sailburuari entzun berri diot irakasleen motibazioaz hitz egiten. “Nola ez dira, bada, irakasleak motibatuta egongo, bizi osorako lana izango badutela!”, zioen berak. Ezinezkoa da pentsamendu horrekin irakaslearen lanean ilusioa edukitzea. Eta horretarako dago Rosa Sensat, Sensat ilusioz beteko zaituen leku hori da, prestatuko zaren lekua, eta ondoan dituzun irakasleen esperientziarekin hazi egingo zara. Errepublikara garaietan eta frankismoan lan egin duten irakasleen ondarearekin haz zitezkeen lekua da Rosa Sensat. Gaur egun, elkarrekin duen erronka da mezu hori zabaltzea, irakaskuntzarekiko ilusioa eta motibazioa zabaltzea.

Baina erronka hori hasieratik izan du Rosa Sensatek. Zer aldatu da?

Irene Balaguer: Hasieran klandestinitatean geunden, eta hori zen irakasleontzat eta Rosa Sensatentzat zailtasunik handiena, klandestinitatea bera. Baina, era berean, denok elkarturik geunden ezarrita zegoen erregimenaren aurka, eta hezkuntza ere batasuna zegoen. Erregimena eta klandestinitatea kontra geneuzkan faktoreak ziren, baina, era berean, indarra eta batasuna ematen zizkiguten irakasleoi. Guztiok egin genuen borroka demokrazia lortzeko, eta, orain, urte askotako demokrazia dugun honetan, legeak, arauak eta araudiak demokratikoak dira, eta horrek zilegitasuna ematen diete araudi horiei, jendeak bozkatuak direlako; baina, sarri esan behar izaten dugu,

neurri eta araudi horiek demokratikoki egin eta onartu diren arren, ez daudela haurren mesedetan eginak. Horrelako jarreraren eta araudien aurrean, horrelakoen aurka, beti aurkituko gaituzte gu. Hor dago hasierako garaietatik hona izan dugun aldaketa handiena: oso zaila da demokratikoki egin, eta onartua, eta bozkatua izan den lege baten kontra egitea. Horrek aldeak dakartza irakasleen artean eta gure taldearen barruan: ñabardurak daude; lehen berriz, aurkari berari aurre egiten genion guztiok elkarrekin.

Azkena, Kataluniako Hezkuntza Legearen aurka agertu da Rosa Sensat.

IB: Iaz onartu zen Hezkuntza Legearen kontra azaldu zen Rosa Sensat, sistematikoki, demokratikoa izanagatik ere, atzerakoia delako guztiz. Aurreko legegintzaldian, pentsatzen genuen gobernu aurrerakoi batek ideia aurrerakoiekin egitura zezakeela herrialdeko hezkuntza, baina, guztiz bestela, ideia zeharo erreakzionario eta merkantilekin egituratu du herria, eta ezin izan ditugu gure ideiak haiekin partekatu. Oron gainetik, guk esperantza gehien Kataluniako Hezkuntza Legean genuen, eta bakarrik gelditu gara legeari kontra egiteko unean. Batzuek eroso zeudelako; besteak, haien alderdikideak zirelako; eta hurrengoek, alde bozkatuz gero mesederen bat jasotzen zutelako, Rosa Sensat bakarrik gelditu da Hezkuntza Legearen kontra egiten.

Dena den, Kataluniako Hezkuntza Legea ez da salbuespen bat European. Europako herrialdeetako bizimodua atzerakoia da, erregresiboa, testuinguru orokorra atzerakoia da European, eta hiritarrak eta irakasleak desorientatuta gaude, ez daukagu ez ezkerrik ez eskunik, guztiak berdinak dira. Eta hori arazo handia da. Lehen gauzak zuri edo beltz ziren, sinpleak, orain, berriz, zuri-tik beltzera, ñabardura guztiak daukazu ostadarrean.

Rosa Sensat Kataluniako Legearen aurrean bakarrik gelditu



zela diozue, eta zer zioten irakasleek?

DA: Gure iritzia behetik gora eraikitzen da, eskoletan dauden irakasleek haien iritzia guri helarazten digute, eta gure argudioak horien arabera lantzen ditugu, behetik gora. Eta, argi eta garbi, iritzi horiek legearen kontrakoak dira.

IB: Beti gutxiengo bat izan da Rosa Sensat, nahiz eta asko garen. Eskoletan dauden irakasleekin gero eta sintonia handiagoa dauka Rosa Sensatek, Kataluniako irakasleak, nagusiki, Hezkuntza Legearen aurka baitaude, eta ez baitute bat egiten azken urteetako politikekin.

Rosa Sensat sortu ondoren, behin frankismoa amaituta ere, gorakada bizi izan zuen irakaskuntzaren berrikuntzak; gero, instituzionalizatu egin da. Zer gertatu da?

IB: 70eko hamarkadan, frankismo bukaerako eta demokraziaren hasierako urteetan, gauzak aldatu nahiz zituzten irakasleek gure lana erreferente zuten, bai udako eskoletan parte hartzen zutelako, bai beste lan batzuen bidez eza gutzen gintuztelako. Urte luzeetan diktadurak inposatu zuen pedagogia-eredu tradizionalaren aurrean pedagogia berritzaileagoa eskaintzen eta aldarrikatzen genuen guk, eta hori irakasle askoren erreferente izan zen. Sare bat sortu zen pedagogia berritzeko autonomia erkidego guztietan. HSAOL onartu ze-

nean, irakasleen zentroak sortu ziren, eta mugimenduan zeuden irakasle haiek guztiak zentro haietan murgildu ziren, eta ezin da bileretan egonaldi berean. Hezkuntza-sistemak, bere kabuz, guztia irensten du herrialde honetan, guztia funtzionarizatu egiten du, eta horixe gertatu da. Orain, irakasle zentro gehienak oso funtzionarizatuta daude, eta egitura arkaikoa dute, aurreko erregimeneko garaien antza handiagoa du, gaur egungo egiturena baino.

Pedagogia berritzailearen aldeko mugimendu hura desagertu egin da, eta berriro beharren oinarrietara joan behar dugu, ez soilik gure errealitatea dinamizatzeke, baita beste mugimenduak aktibatzeke ere.

Konfiantza handia geneukan demokrazian, eta pentsatu genuen ez zela mugimendu sozialik behar, eta hori akats handia izan zen. Zenbat eta demokrazia gehiago, orduan eta mugimendu sozial handiagoa behar da, parte-hartzea areagotu egin behar da. Akatsetatik ikasi dugu lezio hori, noski. Benetako gizarte demokratikoa nahi badugu, ezin dugu mugatu gizarte horren parte-hartze demokratikoa lau urtean behinako bozketara mugatzea, baizik eta gizarte aktiboa izan behar du, iritzia sortuko dituen gizarte, bestela oso demokrazia aspergarria proposatzen digute.

Legez eta funtzionarizazio egituraz hain arkaikoa eta kontrolatua den egitura horretan, eskola

irene balaguer david altimir

E

“Hobekuntza pedagogiko handiak etorriko dira ekintza politiko txikiak eginez egunerokoan, horiek dira gauza handiak, haurren bizimoduan eta egunerokoan eragin zuzena baitute... Adibide bat: eskola txikietan gauzak egitea errazagoa da, emaitzak hobeak dira, baina, hala ere, etenik gabe jarraitzen dute makroeskolak egiten, zailtasunak jartzen... ikusten ari gara sistema horrek ez duela funtzionatzen.

”

berritzaileak garatu daitezkeela uste al duzue?

IB: Begira, gaur egun ez gaude lehen baino kontrolatuago, ea gauzak argitzen ditugun! Kortsea buruan daukagu. Diktadura garaian arauak hausten genituen: eskoletan katalanez hitz egin ezin zenean, katalanez hitz egiten genuen; diktadura garaian neskatoak eta mutikoak bereizirik eduki behar genituen, baina elkartu egiten genituen, era horretan pedagogia aktiboa egiten genuen. Orduan hori guztia egiten bagenuen, gaur egun, nor ukatuko digu eskola berritzailea egitea?

DA: Gaur egun arauak hauts ditza-kegu, kartzelara joateko beldurrik eduki gabe.

Gaur egun, sistema bestelakoa da, eta arazoak eta beldurak ere bestelakoak dira, diru-laguntzak kentzekoa, adibidez.

DA: Ernest Maragall aurreko hezkuntza kontseilariak, araudiaren barruan dagoen eskola “desberdin” bat ikustean, hauxe esan zuen: “hemen metro koadroko hamaika arau hausten dituzue”; eta irakasleek erantzun zioten: “bai, bai, kontseilari jauna, araudiari muzin egiten diogu gauzak hobetzeko”. Eta bere horretan onartu zuen Maragallek irakasleek esandakoa. Helburu eta ideia konkretu batzuei erantzuteko eta hobetzeko denean, araudiak hautsi egin behar dira.

IB: Ez dakit, gaur egun, Euskadi zehazki nola dagoen, baina ni hara joan nintzenean ere ikusi nuen jendeak araudiak hausti egiten zituela, bai eskola publikoetan eta baita ikastoletan ere. Pedagogiako aurrerapauso handienak araudiak hautsiz egin dira, araudiak egiten dituenak ez daukalako ideiarik ere, edota ez dietelako haurrei mesederik egiten. Irakasleak dira haurren errealitatea ezagutzen dutenak eta aldaketak eta hobekuntzak egin ditza-ketenak.

Gutxiengoan kasua den arren, bada jendea eskola berria egiteko ilusioa duena, baina ez du



asmatzen

ilusio horri gorputza ematen. Ba al dator mugimendu berriren bat?

IB: Gauza berriak egin nahi dituzten irakasle horiei laguntza ematea da gure lana. Eskolan irakasleak duen egiteko bera dugu guk: irakaslea laguntzeko dago. Gure belaunaldia zorionekoa izan da, Marta Mata, Jordi Coch, Maria Antonia Aznar... izan ditugu, eta segurtasuna eman digute berri eta hobetu nahi izan dituzten gauza horietan guztietan. Guk ere gazteen ondoan egon behar dugu, baina haiek izan behar dute protagonista.

DA: Irakasleek elkartu egin behar dute, hitz egin, eta guk oxigenoa eman behar diegu gero beraiek egiteko, haurrek bezala.

Unibertsitatean zabiltzate biok. Nola ikusten duzue mundu hori?

IB: Hezkuntzaren errealitateak zera erakusten du: aldatzeko ezintasun handia duela. Amak eta aitak beraien seme-alabekin bezala, irakasleok, egin digutena ikasleengan errepikatzeko joera dugu, hezkuntzan asko eragiten baitu egin dizutenak. Irakasle desberdina, irakasle berritzailea izan nahi baduzu, erantzi egin behar duzu esperientziaz bete dakarzun motxila, eta horrek ahal-egin berezia eskatuko dizu, betiere ez baduzu irakasle aurrerakoi izateko zorriona eduki. Pedagogo handi guztiek eskola-prestakuntza egin dute haurren eskolaren ondoan, Pestalloggi, Frebel, Malaguzzi... Malaguzzik zera esan zuen: “Ez ieazkidazu formatu haurrek, deformatzen eta formatzen lan bikoitza eman behar baitidazue”. Eta hori da unibertsitatearekin gertatzen dena. Berezan ikasteko bidea umeekin egotea da, haiekin esperientziak bizitzea eta, on-

doren, hausnartzea. Praktikorik eta ekintzarik gabe ez dago gogoetarik, eta hori da, gaur egun, unibertsitateak daukan drama handia. Praktikari bizkarra ematen dio guztiz, esperientzia eta hausnarketarako laborategia falta zaio, eta ez dago Bolognarik horri aurre egingo dionik!

Irakasle bokazioa krisian ote dago?

IB: Irakaslegaien artean beti dago proportzio bat bokazioagatik egiten dituen irakasle ikasketak, baina beste kopuru handi bat bestelako baldintzek erakarrita etortzen da; ezin dugu inoiz pentsatu % 100 mundua aldatzeko gogoaz doanik irakasle eskolara. Teoriari loturik dago unibertsitatea, nahiz eta Bolognak praktikak bultzatzen dituen. Baina, praktika guztiek ez dute pedagogia berritzailea eskainiko, praktiketan fitxak betetzen pasatzen dute egun erdia irakaslegaiek. Horrek erakusten du unibertsitatearen krisia.

Jarrera aldatu egin behar da, eta gauza bat izan behar da oso kontuan: irakasleak ere ikasi egiten duela eskolan; guk, irakasleok, etengabe hitz egin beharrean, entzun ere egin behar dugu.

DA: Unibertsitatetik ateratzen den jende berriak ez daki beste era batera lan egin daitekeela, irakaskuntza tradizionala bakarrik ezagutzen du, eta ez dauka ez tresnarik eta ez jakintzarik eskola berritzeko. Unibertsitateak eta eskolek oso harreman gutxi dute. Vic hiriko adibidea jarriko dizuet, unibertsitateak eskolen errealitatea aldatzeko zer gaitasun gutxi duen erakusten du: oso irakasle interesgarriak daude han, baina ez daukate inolako harremanik unibertsitatearen ondo-ondoko ikasleekin; eskola horiek ez dira berritzaileak, ez punta-puntakoak, ez aurrerakoiak. Eskola horiek unibertsitateko gela izan beharko lukete, laborategi; beste era batera lan egiten duen eskola izan behar luke unibertsitatearen ondandagoen ikastetxe batek.

Baina sistemak ez du laguntzen eskola berritzen.



DA: Gaur egun, irakasleok aukeratzeko dugu nora joango garen lanera, ikastetxeetako proiektuek edo taldeek ez dute aukeratzeko beraiekin lan egiteko behar duten jendearen profila. Hori da sistema honen arazoetako bat.

IB: Lege berri bat egiten duten aldi guztian gauzak okertu egiten dituzte. Utz diezaiotela legeak egiteari eta jar daitezela eskoletako errealitateari begira; zailtasunak zailtasun, interes handiko proiektuak ari dira sortzen, eta proiektu horiek lagundu egin behar dira, eredu izango baitira ondokoentzat ere.

Adibide bat: eskola txikiengan gauzak egitea errazagoa da, emaitzak hobekiak dira, baina, hala ere, etenik gabe jarraitzen dute makroeskolak egiten, zailtasunak jartzen. Politika horiek ez dira zuzenak, bizitzeko egokiagoak diren errealitateak behar ditugu. Adin guztietako haurrek egunean ordu asko egiten dituzte eskolan; nolakoa izan behar du eskolak haurrak modu osasuntsuan egon daitezen eskoletan? Bada, aire libreko espazioak dituztenak. Baina ez, makroeskolak eta espazio itxiak egiten dituzte, eta, horretarako, ez da legerik behar. Hobekuntza pedagogiko handiak etorriko dira ekintza politiko txikiak eginez egunerokoan, horiek dira gauza handiak, haurren bizimoduan eta egunerokoan eragin zuzena baitute. Ez ditugu adierazpen ponposoak nahi, horretan guztiok ados geundekete, eta, benetan, ikusten ari gara sistema honek ez duela funtzionatzen.

Zein dira, zuen ikuspegitik, Kataluniako Hezkuntza Lege berriaren puntu ahulenak?

IB: 0-3ari ematen zaion tratua, adibidez. Ikastetxei autonomia eman behar zaie, eta autonomiak zuzendaritzarekin lotuta egon behar du; autonomia deitu dutena ez da onargarria, eskola publikoen artean zauri handia eragingo du haiek proposatzen dutena aurrera ateratzeko, zentroko zerbitzu eta espazioak merkaturatzeko aukera ematen baitu legeak. Legeak demokrazia anulatu egin du. Umeek ez da hitz egin ere egiten; familiez gauza konkretu batzuetarako bakarrik hitz egiten da, eta irakasle-taldeak ere ez da hitz egiten; epeak estutu egiten dira, irakasleak elkar ez daitezten eta eztabaida ez dezaten. Ez badugu denborarik hitz egiteko, elkarriketarako, ezin dugu ezer eraiki, eta hitz egitea eta pentsatzea ez da denboragaltzea, kontrakoa da, denbora aurrerzea.

Gure kasuan, haur eskolak partzuergoan bildu dira Euskal Herriko zenbait kasutan, eta horrek nortasun arazoak dakartza.

IB: Euskadin arazo handi bat duzue: 2 urteko haur guztiak eskolatuta dituzue. Hemen ez da esaten, baina ni auzartzen naiz esatera: hori arazo handia da, 0-3ko tartea 0-2ra mugatuta gelditzen da, eta zaila da hor lan egitea, zeren identitate zaileko epea da 0-2koa. Zentro horiek hezkuntza-zentroak dira, bai,

irene balaguer david altimir

E

“
Zalantzarik gabe, eskolen kudeaketa udalek egin behar dute, gertukoenak dira. Baina ezin zaio transferitu eskumen bat baliabiderik transferitu gabe, hori guztiz arduragabea da.
”

“
Zientifikoki frogatuta dago bizitzako lehen urteak direla pertsonarengan inportanteenak, psikologiak, neurologiak eta antropologiak argitu dute hori.
”

baina ez bakarrik hezkuntza-zentroak. 0-2tik aurrera, badirudi gurasoak ez direla garrantzitsuak, eta pertsona guztientzat gurasoak garrantzitsuak dira, ez 0-2koentzat bakarrik; bizitza osoan oinarritzkoa da familia, eta 3 urtetik aurrerakoei kendu egiten zaizkie gurasoak. Hezkuntzaz gain, zerbitzu sozialetik ere badute haur eskolek, eta hori guztia kudeatzeko tresnak behar dituzte udalek. Kudeaketa udalei transferitu zaie, 0-3 etapak dituen beharrei aurre egiteko nahikoa baliabide transferitu gabe, eta, ondorioz, udalak bere lanak kanporatu egiten ditu, eta hori arazo bat da. Udal titulartasuna dute, baina kanpoan kontrataturiko langileak ditu. Horregatik, gaur egun Katalunian, 0-2 urte bitarteko haur eskola publikoak egoera okerragoan daude pribatuak baino.

Baliabideak izango balitu, eskolak udalaren esku egotea irtenbide ona litzateke, ezta?

IB: Zalantzarik gabe, eskolen kudeaketa udalek egin behar dute, gertukoenak dira. Baina ezin zaio transferitu eskumen bat baliabiderik transferitu gabe, hori guztiz arduragabea da. Udalentzat arazo larria da baliabiderik ez izatea. Udal askok itzelezko lana egin dute beraien ikastetxeekin, eta hori gertu dagoen batek bakarrik egin dezake. Kontua da sistema Napoleonen garaikoa dela, guztiz zaharkituta dagoela. Eta, aldiz, modernotzat saltzen digutena komertzializazioa da, merkatua. Eta ez bata eta ez bestea, gobernuek ezin diete uko egin beraien erantzukizunei: arduratsu izateak udalen zerbitzura baliabideak jartzea dakar.

Haur Hezkuntzan esperientzia handia duzu, Balaguer. Zein dira gaurko erreferenteak?

IB: Perspektiba ireki egin behar dugu, baita geografikoki ere: Latinoamerikari begiratu behar diogu, 0-6 urte bitarteko haurrekin nola lan egiten duten miresgarria da. Era berean, une honetan zientifikoki frogatuta dago bizitzako lehen urteak direla pertsonarengan inportanteenak, psikologiak, neurolo-

giak eta antropologiak argitu dute hori. Horrek lehendik bagenekiena baieztatzen du, hau da, Haur Hezkuntza funtsezkoa dela. Oso profil berezia eragiten du Haur Hezkuntzak profesionalengan: irakaskuntzan dabilen langile suharrena eta motibatuena, mundu osoan, Haur Hezkuntzan dabil. Optimistak izateko aukera dugu, zientziak erakutsi du irakasle eta pedagogoei aurreikusten zutena, hau da, lehen urteak oso garrantzitsuak direla, eta Haur Hezkuntzako irakasleak dira gartsuenak.

Horrek erakusten du hezkuntzari zer-nolako garrantzia ematen dioten instituzioek, diskurtsoetan hezkuntzak garrantzi handia du, bizitza guztiko hezkuntzaz mintzatzen dira, baina, gero, neurriak kontrakoak dira.

IB: Bizitza guztiko hezkuntzaz Jacques DeLors-en *Liburu Zuria* mintzatzen zen duela 20 urte. Gaur egungo Europak ez du zerikusirik DeLorsek aipatzen zuen Europa harekin. Esloganak hartzen dituzte Europako agintariak, eta beraien erara interpretatzen dituzte, DeLorsen *Hezkuntzak bere barnean ezkutaturiko altxor bat du* liburuan esaten zituen ideiak akordio merkantilistetara moldatu dituzte. Horrelakoak dira Lisboako akordioak hezkuntzari buruz egiten dituen erreferentzia guztiak ere, kopuruan oinarritzen du dena Lisboako akordioak: eskolatuen kopurua; prestakuntza profesionalari lehenetasuna ematea, arrazoi ekonomikoengatik; unibertsitateko ikasleen kopurua jaitea, garestiegi ateratzen direlako...

1990ean, Europako Batzordeko sarean nengonean, gomendio-gutun bat egin genuen, eta urte gutxira atzera bota zituzten gomendio haiek denak, eta zenbakitan neurtzen hasi ziren guztia. Gure ideiak hartu zituzten, edukiz hustu egin zituzten, eta beraien erara moldatu zituzten. Europako mapari begiratu besterik ez dago, zenbat gobernu kontserbadore eta zenbat aurrerakoi dauden ikusteko. Eta proposatzen duten hezkuntza ere estilo berekoa da, noski. Ezin dugu ahaztu ingelesez *edu-*

cationek instruction esan nahi duela. Eta gu ez gara ari horri buruz hitz egiten. Arazo ideologikoa dut gaur egungo Europarekin.

Jarrera kontserbadoreak aipatu dituzenez, PPK esan du Katalunian ezin dela gaztelaniaz ikasi. Lehen ez zuen horrelakorik esaten. Giroa aldatu egin al da?

IB: Patetikoa da gai hori. Auzitegi Gorenera hiru salaketa iritsi ziren, Katalunian ezin dela gaztelaniaz ikasi argudiatuta, ez dira gauza ezta 300 salaketa biltzeko ere! Gai hori oso ondo jorratu dute irakasleek Katalunian, eta gaztelaniadun familietako jatorria zutenek ere, duela 30 urte katalana ikasi zuten haur haiek, errespetuz ikasi zuten. Gure belaunaldikoak iraindu egiten gintuzten katalanez hitz egiteagatik, eta jazarri katalanez irakasteagatik. Gaur egun, haurrek naturaltasunez eta errespetuz ikasten dute katalanez, gure hizkuntzak maitatua izan behar du, ez inposatua. Eta katalana eta gaztelania, biak ikasi behar dira.

DA: Gurasoek haurren hizkuntza erabakitzen badute, bereizi egiten dituzte, hizkuntza gutxitua ez dakiten haurrak ari baitira sortzen.

Katalanaz eta gaztelaniaz gain, eskoletan ingelesa sartzearena nola daramazue Katalunian?

IB: Kontua da ez direla gauza bera eskubide-berdintasuna eta terrenteria. Ingelesa ezarri nahi duten moduak arazo ugari ditu: lehenengoa, ez dauzkagula behar adina irakasle ingelesez ondo hitz egiten dutenak; gero eta lehenago ikasten hasteak ez du esan nahi hirugarren hizkuntza hori gertukoagoa izango denik; eta, bestetik, teknologia berriak erabili behar ditugu hizkuntza hau edo bestea ikasteko.

Ingelesetik aparte, testuinguru eleantiztun hori baliatu egin beharko genuke ikasleari bere lagunen hizkuntza guztiak ezagutzen laguntzeko, eta hitz batzuk behintzat ulertzeko. Errealitate desberdin asko dauzkagu inguruan, eta eleantiztasun hori ezagutzea oso aberat-

sa izan daiteke, eta oso erraz egin daiteke, gainera; haurra protagonista izan daitekeela dioen teorian bete-betean sartzen da ideia hori. Haurrak bere amahizkuntzan konta dezake ipuin bat, bere senide batek lagundurik; gutxienez, ikasleek hizkuntza horren musika ezagutuko dute, eta hori oso aberatsa da. Harro esaten dut eskola aberatsena publikoa dela, hizkuntza asko ditugu, kultura asko, eta aberastasun hori partekatzen ikasi behar da.

Guk hemen, nagusiki, ingelesa daukagu buruan, baina ez da leku guztietan horrela: Berlinen izan nintzen duela hiru urte, eta bisitatu nituen ikastetxe guztien artean batek berak ere ez zuen ingelesa irakasten, latina edo txinera eskaintzen zuten, zentroak autonomia zuen zer hizkuntza ikasiko zituen hautatzeko.

Ikasgaiak adinean aurreratzea eta ikasgai batekin gero eta lehenago hastea irakaskuntza-akats handia da. Zertarako behar dute ingelesa haur txiki horiek?

Ingelesa bezala, informatika ere gero eta lehenago sartu nahi da...

IB: Informatikan arazoa dugunok helduak gara, haur horiek informatikaren aroanjaio dira, eta nik bolaluma erabiltzen ikasi nuen bezala dakite haiek ordenagailuak eta teknologia berriak erabiltzen. Gu blokeatu egiten gara, baina haiek ez. Haurrak irakasleen eta gurasoen irakasle izan daitezke, eta ez dago arazorik, haiei eman behar diegu protagonismoa. Guk lagundu behar

diegu irizpideak ezartzen, zer den interesgarria eta zer ez bereizten lagundu behar die irakasleak, nahiz eta tresna haurrak baino okerrago erabili.

Zer lan ditu oraintxe eskuartean Rosa Sensatek?

DA: Esandako erronkak betetzen eta ilusio horri erantzuten lan handia dugu. Baina, bestelako lan “praktikoa-goak” ere baditugu. Udako ikastaroek, adibidez, goraka egin dute azken lau urteetan. Irakasle berriak oso gustura etortzen dira, gauza berriak ezagutzen dituztelako. 175 bat ikastaro antolatu genituen iaz, eta hezkuntza birsortzeko beharrari buruzko eztabaidak egin genituen. *Infancia* aldizkarian lanean jarraitzen dugu, *Infanciaren* ale katalana eta gaztelaniazkoa daude, baina biak autonomoak dira, ez dira itzuliak. *Infancia* katalanak Balear Uharteak, Valentzia eta Ipar Katalunia hartzen ditu. Eta *Infancia European* 16 hizkuntzatan idazten da, eta 16 herrialde horietako langileekin osaturiko erredakzio-kontseiluak dauzkate.

IB: Aurrera begira, jardunbide egokiak zabaltzeko telebista bat sortuko dugu. Jardunbide egokien eredu asko daude, eta 2011 honetan telebista digital bat sortu nahi dugu ikastetxe horiek ezagutarazteko, eta 2012an jarriko du indarrean Rosa Sensatek telebista hori. Ikusiko dugu haurrak nola antolatzen diren espazioetan, adibidez. Gaur egungo baliabideekin lan egiten ikasi behar dugu. Eta galtzak bete lan dugu.



Antzerki soziala Arantzazun

Fikzioa, errealitatea eraldatzeko tresna

Antzerki sozialaren bidez, jazarpenaren aurkako esku-hartze prebentiboa lantzen da Arantzazun, Baketik gatazken lantze etikoaren bake-zentroan

Bi atezainek, oso serio, nortasun-agiriak eskatu dizkiete gaztetxoei, eta biribilean eserarazi dituzte guztiak. Bati motxila irekiarazi diote. Serio. Ez dago irribarrerik ia, esan liteke urduritasuna nabari dela airean.

“Hasi da ikuskizuna”. Atezainak aktoreak dira, eta gaztetxoak, ikasleak. Guztiak antzezlan baten parte dira, gaztetxoek ez jakin arren. Eta *Hik Hasi* ere saio batean parte hartu du, ikasleekin batera. Antzezlan horrek ezaugarri bereziak ditu, antzerki-foroa baita: antzerki modu horretan, aktoreek arazo bati buruzko lan bat antzeztuko dute, amaiera gaiztoko antzezlan bat, hain zuzen, eta ikasleen lana eszenak eta eszenatokia aldatuz istorioa hobeto amaitzea izango da, ikasleak beraiek aktore bihurtuta. Gizartean eragiten duen metodo pedagogikoa da antzerki soziala.

Lehenik eta behin, Gilbertoren kasua antzeztu dute Elena Azkargorta eta Mai Gorostiaga aktoreek. Gilberto Brasildik Euskal Herrira etorri berria da, eta, euskaraz eta gaztelaniaz deus jakin gabe hasi da eskolan. Berehala bihurtu da gelakideen irainen eta burlen jomuga.

Jazarpenaren eta integrazioaren



gaia bi antzezlan laburren bidez aurkeztu dute aktoreek, eta, bitartean, isilik eta adi daude ikasleak. Berehala altxatu du eskua ikusleen artean biribilean eserita dagoen gaztetxo batek. Ramon du izena: “Ni asko identifikatuta naiz Gilbertoren kasuarekin. Errumaniatik etorri nintzen, ez euskaraz eta ez gaztelaniaz ezer ez nekiela, eta hasieran oso bakarrik sentitu nintzen”. Ramonen gelakide gehienak ere jatorriz Euskal Herriz kanpokoak dira, eta, apurka-apurka, haiek ere beren esperientziak kontatzen hasi dira.

Azken batean, horixe da Antzerki

Forumaren helburua, metodo pedagogiko gisa eztabaida ikasle eta irakasleen esku jartzea, eta errealitatea ezagutzeko eta aldatzeko hausnarketa metodo gisa erabiltzea. “Ikusle pasiboa egile eta aktore aktibo bihurtzea lortu nahi da, lehenik antzezlan batean, eta, gero, agian, bakoitzaren errealitatean”.

Duela bost urte abiatu zuten Antzerki Foruma Arantzazun, eta ordutik horretan dabilta Elena Azkargorta eta Mai Gorostiaga, adibidea Irlandan hartuta, eta “gizartean eta eskolan jazarpenak sortzen duen kezka ikusita”. Jazarpenaren aurkako esku-hartze preben-

tiboa lantzen da, beraz, Arantzazun, Baketik gatazken lantze etikoaren bake-zentroan. 8 urtetik 16 urte bitarteko haurrentzat dago prestatua, eta, adinaren arabera egokituta, arrazismoaren, jazarpenaren edota *bullying*-aren aurkako esku-hartze prebentiboa lantzen dute, antzerkiaren bidez.

Hiru ataleko esperientzia

Gilbertoren kasua eta lankide ijito bat onartzeagatik amarekin arazoak dituen mutilaren kasua planteatu ostean, gaztetxoek antzezlanetan aurkeztutako jarrerak aldatzeko proposamenak egiten dituzte, eta ikasleek beraiek antzeztzen dituzte jarrera horiek, zorigaiztoko amaiera aldatu eta zuzenago bat emaneko egoera horiei.

Fikziozko bi kasu aurkeztu eta landu ondoren, jazarpen- eta integrazio-arazo erreal bat aurkeztuko diete haurrei, Babaren kasua. Babak berak adie-

razi duenez, Senegaldik etorri zen Euskal Herrira lanera, eta hemen bizi izandako egoera gogorak aurkeztu dizkie ikasleei. Babari galderak egiteko aukera izan dute, eta elkarrekin esperientziak partekatu dituzte.

Esperientzia horren hirugarren zatian, analisi- eta gogoeta-lantegi bat egingo dute guztiek elkarrekin, eta norberak bizi izandakoa, ikusitakoa eta jarrerara egokiagoak mahai gainera ekarriko dituzte. Hezitzaileen arabera, hirugarren atal horretan hausnarketa ugari planteatzen dituzte ikasleek, antzerkiaren bidez emozioak azaltzen baitituzte

17.000 ikasleren esperientzia

Arantzazuko Antzerki Forum egitasmoan, antzerkiaren bidez eskolan balio etikoak bultzatzen dituen programa horretan, 310 ikastetxek eta 8 urtetik 12 urtera bitarteko 17.000 ikasle inguruk hartu dute parte dagoeneko. Bake-tik-ek ikastetxeei zerbitzu hori kosturik gabe eskaini die azken bost ikasturteetan; baina, krisiaren ondorioz eta erakundeek laguntzak gutxitu egin direnez, ikastetxe bakoitzari laguntza eko-

nomiko xume bat eskatuko diote aurrerantzean Arantzazutik, egiten duen Antzerki Forumeko saio bakoitzeko. Horrez gain, aurtengo programazioari beste gai bat, laugarrena, gehituko diote, giza duintasunaren ikaskuntza oinarri hartuta: droga-mendekotasunaren prebentzioa landuko dute 16 urtetik 18 urte bitarteko ikasleekin. Hauxe da ikasturte honetan izango duten egitaraua: irailaren 19tik azaroaren 14ra, eskolako indarkeria- eta jazarpen-jarretaren prebentzioa, 10 urtetik 13 urte bitarteko ikasleentzat; urtarrilaren 16tik otsailaren 16ra, giza duintasunaren ikaskuntza oinarri hartuta, droga-mendekotasunaren prebentzioa, 16 urtetik 18 urte bitarteko ikasleei zuzendua; otsailaren 27tik martxoaren 29ra, eskolako afektibitate- eta bizikidetzaharremantetan errespetu-, askatasun- eta berdintasun-balioak lantzea, 13 eta 14 urteko ikasleentzat; apirilaren 16tik maiatzaren 22ra, eskolan errespetu- eta berdintasun-balioak lantzea, kultura aniztasunarekin eta immigrazioarekin lotuta, 15 eta 16 urteko ikasleentzat.



Eskolako gatazkak bitartekarien bidez konpontzen

Argentinako Chubut eskualdean egindako proiektua

Gatazka gure eguneroko bizitzaren parte da, eta, beraz, eskolako bizitzaren parte eta ikasleen bizitzaren parte ere bada. Argentinako Chubut eskualdean, Lago Puelo herriko eskoletan, bitartekaritza-sistema erabiltzen dute ikastetxe barruko gatazkak konpontzeko. Bertatik bertara ezagutu du sistema hori Leire Perez Azkona Haur Hezkuntzako irakasleak, han egin baititu Psikopedagogiako praktikak.

Bitartekaria zer den azaldu du, lehenik eta behin, Perez Azkona irakasleak: “Bitartekaritza hirugarren pertsona bat bitarteko hartuta egiten den negoziazio prozesua da. Pertsona hori neutrala da. Prozesu horretan, bitartekaria parte aktiboa da, eta akordioa lortzeko iradokizunak eta gomendioak egiten ditu. Baina ez du inongo ardurarik ez eta boteririk ere, gatazka konpontzeko bideratuko diren erabakiak hartzeko”. Zehazki, eskolako bitartekaritza ikasleen arteko gatazkak konpontzeko erabiltzen den teknika da, baina eredu horrek, pertsonen arteko gatazkak konpontzeaz gain, “elkarbizitzako eredu baketsuak” sustatzea du helburu.

Ikasleak, irakasleak edo bitarteka-



Leire Perez Azkona andereñoa

ritza zerbitzuko langileak izan daitezke bitartekariak. “Bitartekari-lanak egiten dituen boluntario gisa aritzen da, eta, lehenengo, prestakuntza jasotzen du, gai zehatz batzuen inguruan: bitartekariaren funtzioaz, entzute aktiboaz, autoestimua, begiruneaz eta tolerantziaz”. Alabaina, bitartekari horren lana ez da epailearena izango, bi alderdiek konponbide baketsu bat bilatzea baizik. Eskoletan, berdin arteko bitartekaritza-proiektua ari dira garatzen, hau da, ikasleen arteko bitartekaritza-proiektua.

Abantaila ugari ikusten dizkio Perez Azkonak bitartekaritza-teknika eskolan erabiltzeari: “Errespetua, parte hartzea, komunikazioa... Balio positibo ugari lantzen dira; horrez gain, gatazkak modu baketsuan konpon daitezkeela ikasten dute ikasleek, eta nor-

berak izan duen jarreraz gogoeta egiteko aukera dauka, norberaren emozioak eta besteenak aztertzen dituzte; azken batean, menderatze-harremanak ezabatu egiten dira”. Haatik, zenbait gabezia ere baditu teknika horrek, “bitartekaritza ez baita nahikoa eraso larrien kasuan”.

Lago Pueloko esperientzia

Argentinako Chubut probintzian, 2002an hasi ziren gatazkak modu baketsuan konpontzeko bitartekaritza erabiltzen, eta handik 5 urtera sartu zen Lago Pueloko eskoletan berdin arteko bitartekaritza-proiektua. Argentinako estatuak eskaintzen duen zerbitzua da, eta ez da hezkuntzara mugatzen. Eskolan garatzen den bitartekaritza-lanak indarkeria modu prebentiboan lantzeko aukera ematen du, “gaitasun sozialen ikaskuntza sustatuko duten estrategiak eta ekintzak jartzen direlako abian, eta elkarbizitza hobetu egingo dutelako horiek”, azaldu du Perez Azkonak. Eskola programa horrek berdin arteko bitartekaritza gararaziko duten ekintzak diseinatzera bideratuko du eskola, eta horretarako, ikasleekin gatazkatsuak izan daitezkeen zenbait egoera landuko dituzte aurrez. Lan prebentibo horren parte da, esate baterako, ikasleak prestatzea.

Prestakuntza jaso duten ikasle horiek bitartekari izan daitezke ikaskideen arteko gatazketan, beren burua boluntario aurkezten badute eta gatazkan dauden bi alderdiek onartu egiten ba-

dituzte. Perez Azkonak zehaztu duenez, bitartekaritzak ezaugarri hauek bete behar ditu: isiltasuna, neutraltasuna, elkarlana, nahitasuna eta etorkizunari begiratzea. Baldintza horiek betetzen direnean, bi alderdien arteko komunikazioa eta ulermena bultzatuko duten zenbait fase bereiziko dira bitartekaritza horretan: alderdi bakoitzarekin hitz egingo du bitartekari boluntarioak, eta zer prozesu egingo duten azalduko die; arauak eta prozesua aurkeztu ondoren, bi alderdiek gertaeren bertsioa azalduko dute, eta pixkanaka gatazkaren korapiloak identifikatu egingo dituzte guztien artean eta gatazka konpontzeko abiapuntua ezarri. Azkenik, bitartekariak konponbideak proposatuko dizkie alderdiei, eta ados jartzen ahaleginduko dira, neurri orokatuak, zehatzak eta egingarriak adostu ondoren.

Prozesu hori guztia hainbat jardueraren bidez egiten dute alderdiek eta bitartekariak, eta jarduera horien helburu nagusia bizitzarako baliagarriak izango zaizkien gaitasunak garatzea da. “Gaitasun horiek, bereziki, elkarbizitza eta gatazken konponbide baketsua lortzera bideratzen dira, eta hainbat ezaugarri lantzen dira jardueren bidez, besteak beste, pentsamendu kritikoa eta sormena, komunikazio eragilea, harremanak ezartzeko eta harreman horiei eusteko gaitasuna, emozioen eta tentsioen kudeaketa egokia, enpatia eta gatazka konpontzeko gaitasuna.

Jokoen bidez, antzezpene bidez, ipuinen bidez, telebistako programen bidez edota komikien bidez garatzen dira jarduera horiek, eta bakoitzak helburu zehatz bat dauka. Altxorraren bila jokoaren bidez, esate baterako, taldeko kideen arteko elkarrekintza sustatzen dute; antzezpene bidez, sentimendu, ideia eta sentsazio komunengatik inguruko gogoeta eta ikerkuntza egiten dute; *Edurne Zuri, Errauskine* edota *Txano*



Gorritxo ipuinetako testuak aztertuz, edota telebistako programen bidez edo komikien bidez, berriz, gatazkak eta horien konponbidearen inguruko azalpenak aztertzen dituzte. Azken batean, ikasleek gatazkei buruz gogoeta egitea eta hitz egitea bultzatzen dute jarduera horiek, eta baita gatazkek eragiten dituzten sentimendu eta jarrerengatik inguruan hitz egitea ere. Eta, azkenik, negoziazioaren garaia dator: “Gatazkak konpontzeko bide bat negoziatzeko dela azaldu behar zaie ikasleei, eta zenbait estrategia eta baliabide identifikatzeko ariketa egin behar da”.

Bitartekaritza- eta negoziazio-lan hori, baina, ez da soilik boluntarioren esku gelditzen; izan ere, koordinazio-talde bat dago eskolan, eta talde horrek gatazken konponbidearen jarraipena egiten du. Koordinazio-taldeak bitartekari diren ikasleen taldearekin bilerak egingo ditu hamabostean behin. Horren ondoren, eskolak erabakitzen duen maiztasunez, proiektuaren inguruko txosten laburrak eta iritzi-bilketak egingo dira, eta ikasturtearen amaieran, proiektua ebaluatuko duen txostena egingo da, eta erabilitako tresnak, teknikak, estatistikak, inkestak... jaso egingo dira txosten horretan.

Lago Puelon, bitartekaritza-lana ez da mugatzen ikasleen artean egiten den “ariketa”; izan ere, gatazkak modu baketsuan konpontzeko buruzko sentibilizazioa, prestakuntza eta zabal-kundea bultzatzen ditu proiektuak, eta ikerlan jarraitu bat egitea eskatzen du. Era berean, erakundeekin batera ari dira lan hori egiten ikastetxeetan, Argentinako estatuak eskaintzen duen bitartekaritza-zerbitzu hori ez baita mugatzen hezkuntzara, edozein gatazka mota konpontzeko teknika gisa erabiltzen baitute.

Ondorioetara iristean, Leire Perez irakasleak dio oso garrantzitsua iruditzen zaiola eskolan balio eta jarrera batzuk lantzea eta irakastea, hala nola, elkarlana, elkarbizitza, begirunea, onarpena, eta bortizkeria bilatzen dutenak baztertzea. “Bitartekaritzak gatazka horiek guztiak modu baketsuan konpontzeko aukera ematen digu”. Baina, proiektu horren bidez, Gasteizko irakasleak argi ikusi du bitartekaritzarekin ez dela soilik irakasten gatazkak konpontzeko bide bat: “demokrazian, bakean eta giza eskubideetan oinarritzen den ikaskuntzan sakondu nahi da, benetako protagonistei, ikasleei, hitza emanez”.

KALITATEA HAUR ESKOLETAN

Jardunaldiak



Azaroaren 11an (ostirala) DURANGON

- **Hainbat berba haurren ongizateaz eskolan.**

* **Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea.**
Mondragon unibertsitateko irakasleak.

- **Bizi eta ikasi haur txikiekin.** (*gaztelaniaz*)

* **Rosa Ferrer.** *Sant Cugat del Vallès-eko Cavall Fort haur eskola. Katalunia.*

* **Elia Martinez.** *Sant Adrià dels Besos-eko Josep Miquel Céspedes haur eskola. Katalunia.*

- **Kalitate eredu proposamena 0-3 eskoletarako.**

* **Txusma Azkona.** *Haur Hezkuntzako irakaslea eta Lizarrako Arieta Haur Eskolako zuzendaria.*

Azaroaren 12an (larunbata) DONOSTIAN

- **Hainbat berba haurren ongizateaz eskolan.**

* **Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea.**
Mondragon unibertsitateko irakasleak.

- **Bizi eta ikasi haur txikiekin.** (*gaztelaniaz*)

* **Rosa Ferrer.** *Sant Cugat del Vallès-eko Cavall Fort haur eskola. Katalunia.*

* **Elia Martinez.** *Sant Adrià dels Besos-eko Josep Miquel Céspedes haur eskola. Katalunia.*

- **Kalitate eredu proposamena 0-3 eskoletarako.**

* **Txusma Azkona.** *Haur Hezkuntzako irakaslea eta Lizarrako Arieta Haur Eskolako zuzendaria.*

- **Mahai-ingurua.** *Txusma Azkona, Alexander Barandiaran, Rosa Ferrer, Iñaki Larrea eta Elia Martinez.*

informazio osoa eta izena emateko aukera:

www.hikhasi.com Tel.: 943 371 408

Nola neurtzen da irakaskuntzaren eta ikasketaren kalitatea?



Nola zehazten da beste lanbide batzuetan jardun profesional bat zenbateraino den egokia?

Gure ikastetxeetan kalitatea eskaini nahi badugu, ezinbestekoa da hezkuntza-erakundeko irakasgai guztietako eskola-ordu guztietan eta ikasturte guztietan irakaskuntza ona izatea, eta horregatik, zenbait galdera egin behar dizkiogu geure buruari:

- Zer da irakaskuntza ona?
- Zerk egiten du irakaskuntza “kompetentea” izatea?
- Nola ezagutuko dugu, ikusten dugunean?
- Zer egin behar dugu gure irakasleentz eta zuzendarien kompetentziak etengabe hobetzeko?
- Nola abiatuko ditugu irakaskuntza efektiboa, kalitatezkoa edo ona zer den argitzeko eztabaidak?

Lehenik eta behin, denok ikuspegi bera eduki behar dugu gure ikastetxean hezkuntza-jardun ontzat zer hartzen den definitzean. Horretarako, beharrezkoa da, beste edozein kalitate-sistematan bezala, batetik, irizpideetarako parametroak zehaztea, hezkuntza-



Federico MALPICA
ESCALAEKO ZUZENDARIA. BARTZELONA

jardun onak behin eta berriz aztertuz, harik eta irizpideak bateratu arte, eta bestetik, pisu espezifikoetan ados jartzea, harik eta denok kalitate pedagogikoaren kontzeptu bera izatea lortu arte.

Ez da erraza irakaskuntza onaren eta hezkuntza-jardun egokiaren deskripzio argi eta zehatza ematea eta denok bat etortzea. Horixe da hezkuntzan dugun arazoetako bat, eta, beraz, erroka handienetako bat.

Edozein lanbidetan, profesional

onaren helburuetako bat bere lanbidean gero eta hobea izatea da. Edozein profesionalen azken xedea beren jarduna hobetzea da. Lanbide gehiengentan, badituzte ezagutzak jardun profesional bat zenbateraino den egokia jakiteko. Ezagutza horiei esker, zein jarduni eutsi behar zaien eta gutxi-asko zein aldatu behar diren jakin dezakete.

Zer neurritan aplikatu daitezke ikastetxean jardun profesionalari buruz erabakiak hartzeko modu hori? Aztertzen badugu zer uste sendo ditugun irakaskuntzan zer hobetu behar den identifikatzeko, ikusiko dugu zoritxarrez ez dugula nahikoa datu beste lanbide batzuetan jokatzen duten bezala jokatzeke.

Eta hori horrela da, orain arte ikastetxean irakaskuntza-jarduna ona den ala ez den aztertzeke erreferentzia teoriko ezegonkorak erabili direlako (paradigmak, korranteak, metodo jakinak), eta batzuetan hori ere ez. Nola nahi ere, profesionalen komunitateak aldaezintzat zituen, behintzat. Egoera hor izanik, irakaskuntza-jarduna artea da askoren iritzi.

Zenbait ikerketak –psikologi- atik datozenek, beste- ak beste- nahikoa datu fidagarriak eta kontrasta- tuak ematen dizkigute, iden- tifikatzeko zer ezaugarri eta irizpide izan



behar dituzten irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardue- rek, ezarritako helburuak lortzeko modukoak izan daitezten.

Hezkuntza artea al da?

Ia irakaskuntza bezain konplexua den beste lanbide bati erreparatuko diogu, medikuntzari alegia, eta ikusiko dugu alor horretako profesionalak uste dutela beren jardunean bi alderdi dardela elkarrekin lotuta: teknikoa eta “artistikoa”. Beraz, medikuntzako profesionalak beren jardunaren analisia egingen dutenean, honela esan dezakete: egoera jakin baterako irizpide bat dagoenean, profesionalak zientifikoki jardun behar du, baina irizpiderik ez dagoenean, medikuak artistikoki jardun dezake.

Irakaskuntzan ere alderdi artistiko nabarmen bat badagoela onartuz gero, planteatu dezakegu ba ote dagoen eza gutza bat, zenbait alderdi profesionali buruzko informazioa ziur emango diguna, horrenbestez guk ere medikuek bezala esan ahal izateko irizpide bat baldin badago gure irakaskuntza-jardunak zientifikoa izan behar duela, eta irizpiderik ez badago, berriz, artistikoki joka dezakegula.

Ez dagoenez erreferentzia kontrastaturik hobetu behar denari buruz erabakiak zalantzarik gabe hartzeko, arbitrariotasunez jokatzera behartuta gau-

de, eta, beraz, segurtasunik gabe. Horrelakoetan, irakastea artea da, eta edozein aukera izan daiteke ona. Horrek iritenbiderik gabeko egoera batean uzten gaitu; intuizioaren esku uzten du erabakitzea zer mantendu behar den eta zer berrikusi behar den irakaskuntza-jardunean, eta erabaki hori erantzukizun handikoa da.

Bestalde, guk egindako ikerketan, hezkuntza-jarduna ebaluatzeko adierazleei buruz galdetean, ohartu gara ikastetxeetan normalean erabiltzen dituztenak ez direla benetan jardunari dagozkionak, baizik eta antolamenduari edo emaitzei buruzkoak. Adibidez:

A) Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko adierazleak (baina ez dute adierazten zein diren egokiak):

- Ezagutzen eta esperientziaren aurre-eskakizun esanguratsuak.
- Ikasketa-plan eta –programen garapena, berrikuspina eta eguneratzea.
- Ikasketa-planen diseinua eta eguneratzea.
- Ikastaro-katalogoen garapena.
- Irakats-zamen esleipena.
- Laborategi eta tailerretarako jardunen eskuliburuen hornikuntza.
- Irakaskuntzarako material didaktikoaren edo materialen garapena eta prebentzioa.
- Eskolen ordutegia.

B) Ikastaroen (eskolen) antolamenduari buruzko adierazleak (baina ez metodologia pedagogikoari buruzkoak):

- Irakasleen gaikuntza.
- Ikasleen aukeraketa eta onarpena.
- Ikaslearen eskolen erregistroa.
- Eskolen ikasketa-programa.
- Irakasleen kalifikazioak.
- Ikastaroetako apunteak eta azterketak.
- Erregistroen informazioa.
- Baliozkotzea zenbatero berritzen den.

C) Ikastaroko emaitzei buruzko adierazleak (baina ez dute azaltzen nola iritsi den emaitza horietara):

- Ikastaroa/Ikasturtea gainditu du-

ten, gainditu ez duten ikasleen kopurua.

- Maila berri behar duten ikasleen kopurua.

- Ikasturtean zehar baja eman duten ikasleen kopurua.

- Ikasleen eta familien asebetetze maila.

- Ikasketa-plan edo –programen diseinu eta garapenaren baliozkotzearen emaitzak.

Adierazle horiek guztiek ez dute benetan irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko daturik ematen, baina XXI. mende honetan hezkuntza-erakundeetan adierazle horiek ari dira erabiltzen: beraz, azter al dezakegu irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen kalitatea?

Egiaz, bai, azter dezakegu hezkuntza-jardunaren kalitatea, badugulako jardun hori oinarritzeko zientzia bat.

Lanbide bat eta bi erreferentzia

Beste lanbide batzuetan erreferentzia bakarra dute beren jardun profesionala azaltzeko, baina hezkuntzaren alorrean, arkitekturan bezala, bi erreferentzia ditugu, oso ondo identifikatuta, gure jardun profesionala azaltzeko. Arkitekto-talde bat bilduko bagenu obra baten inguruan, eta hura baloratzeko eskatu, seguru asko honela galdetuko ligukete: zer nahi duzue baloratzeko, estetika ala eraikuntza? Estetika erantzunez gero, seguru asko ez lirateke denak bat etorriko, arkitekto bakoitzak estetikaren bere ideia duelako. Batzuk klasi-koagoak dira, beste batzuk funtzionalistagoak, beste batzuk gaur egunekoagoak. Estetika bakarra ez dagoenez, ezin dira protokolo unibertsal bakarrak egon, estetika bakoitzak bereak ditu. Bestalde, arkitektoei eraikuntzari buruz galdetuko bagenie, etorriko al lirateke bat? Seguru asko, bat etorriko lirateke jardun profesionalaren balorazioa egitean, zientzian oinarrituko litzateke-elako; hau da, ingeniartzan, matematikan, materialen fisikan eta abarretan. Zutabeei erreparatuko liekete, distantzietan, erresistentzietan, lehengaiei... Aztertuta, esperimentatuta eta frogatuta da-

goen orori. Hori dela eta, badira eraikuntzarako protokolo unibertsalak, mundu osoan erabiltzen direnak, eta dauden eta agertzen diren estetika desberdinekin konbinatzen dira.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean gauza bera gertatzen zaigu. Eztabaidagarria dena eta ez dena bereizi behar ditugu. Zientifikoa den horretan bakarrik etor gaitezke denok bat, baina ezin dezakegu “estetika” alde batera utzi; hau da, gure kasuan, irakasuntzaren funtzio soziala, hezkuntzaren xedeak, irteera-profila, edota, gauza bera dena, zer ikasle-mota prestatu nahi dugun.

Hezkuntza-jardun profesionalaren bi erreferentziak

Egiaz, bi erreferentziak erabili behar ditugu. Bata zientifikoa da, tekniko, eta, beraz, funtzionatzen duen horretan oinarritua egon behar du. Bestea ideologikoa da, ez-zientifikoa, eta, beraz, erakunde bakoitzaren neurria eraiki behar da. Azken erreferentzia hori hezkuntzaren xedeak dira: erakunde batek zer nahi duen bere ikasleentzat, beren prestakuntza bukatzen dutenerako; horri irteera-profila deritzo (ingelesez, Learning Outcomes). Profil hori ez da denontzat berdina: erakunde bakoitzak, programa-mota bakoitzak, hezkuntza-maila bakoitzak, testuinguru bakoitzak bere profila du. “Hatz-marka” bezalakoa da: eskola, erakunde, instituzio fakultate eta programa baten “hatz-marka”. Eztabaidagarria da, eta prestakuntzako arduradunek, irakasleek eta parte-hartzaileek adostu egin behar dute. Hezkuntzaren xede horiek, lehenik eta behin, lege-esparruan daude adierazita, gizarteak erabaki behar duelako, gobernua bitartez, zer-nolako herritarrak prestatu nahi dituen derrigorrezko hezkuntzan. Baina, horrez gain, beste leku batzuetan ere adierazita daude: erakunde-idearioetan, arauetan, liburuxka eta webguneetan, non ikasleari hitzematzen zaion programaren bidez hainbat jakintza, trebetasun eta jarrera lortuko dituela, testuinguru espezifikoetan el-

karri lotuta erabili ahal izateko; hau da, ikasleak ustez garatu beharreko kompetentziak agertzen dituzten horietan guztietan daude adierazita hezkuntzaren xedeak. Erreferentzia horrek printzipio soziologikoak eta epistemologikoak erabiltzen ditu, testuinguruaren arabera zer irakatsi beharko litzatekeen erabakitzeke.

Beraz, obra berri batean arkitekto-talde bat jarri nahi badugu lanean, bakoitzaren estetika alde batera utzi eta eraikuntza berriaren estetikari buruz jarri behar ditugu ados (edota onar dezatela eraikuntzarako lehendik erabaki zen estetika). Hala egiten ez badugu, teknika bera txartzat emango dute azkenean, estetikaren alde egiteagatik. Hortik aurrera, denak estetikarekin bat badatoz, ez da eztabaida antzu gehiago izango. Denek egin ahal izango dute lan irizpide zientifikoei jarraiki, denak izango dira efizienteak eta denek bete ahal izango dituzte beren helburuak.

Hezkuntzan, arduradunak eta irakasleak hezkuntzaren xedeetan bat etortzea lortu behar dugu (alde batera utzita irakasle bakoitzaren xedeak; hau da, ikasleentzat prestakuntza-aldia bukatzen dutenerako nahi duten ikasle-profila), ez ditzaten azkenean metodologia pedagogikoak txartzat eman metodologia horien osiera ideologikoa-rengatik. Behin denak ados jarrita, talde-lanean aritu ahal izango dira, taldean irakatsi ahal izateko; izan ere, beharrezkoa da hori, ikastetxean nahiz erakunde-mailan proposatutako hezkuntza-helburuak betetzeko.

Behin irakasten den horren eta prestatu nahi den pertsona-motaren arteko koherentzia identifikatu dela, berrikusi behar da ea egiten diren irakasuntza-jarduerak egokiak diren ala ez ikaskuntza hori lortzeko. Hortxe eragiten du erreferentzia zientifikoak; hau da, zenbait zientziak—gizakiok ikas dezagun zer baldintza eta prozesu bete behar diren aztertu dutenek—ematen dizkiguten ezagutzak.

Bestelari bide batzuetan bezala eza-gutza zientifikoaren baliabidea bilatzen badugu, ikusiko dugu irakaskuntzan,

Jardun profesionala baloratu eta hobetu nahi badugu, ezin izango dugu ez unibertsalki egin, ez emaitzetan bakarrik oinarritu, ebaluazio estandarizatuak proposatzen diguten bezala.



nahikoa azterketa zientifiko ez dagoenez, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko azalpen-eredua zenbait paradigma ezartzera mugatzen dela, prozesu horiek interpretatzen saiatzeko. Horrenbestez, irakaskuntza-jardun bat zenbateraino den egokia adierazteko, paradigma jakin bat izango dugu. Irakaskuntzan hainbat paradigma-mota daudenez (teknologikoa, soziokritikoa, humanista, etab.), edozein proposamen pedagogikok ere hainbat balorazio izan ditzake, azterketarako erabili den paradigmaren araberkoa izango baita. Beraz, azken ondorioa da ia ezinezkoa dela jardun profesionala hobetzeko erabakiak taldean hartzea, guztioke baitugu paradigma bera, eta, beraz, denak balio duelako ustea gailentzen da: onartzen da “zenbat buru hainbat aburu” dagoela (edo gaztelaniazko “cada maestrillo con su librillo”), eta “katedra-askatasunaren” interpretazio maltzur bat erabiltzen da.

Bigarren erreferentzia, beraz, tekniko da, eta oinarri zientifiko du. Gizakion ikasteko modua adierazten duen zenbait printzipiotan dago oinarrituta, eta printzipio horiek esperimendu eta frogatuta daude XIX. mendean amaieratik, XX. mendean zehar eta XXI. mendean iragan dugun denboran. Printzipio horietako asko, gainera, zentzuzkoak dira. Adibidez, azaltzen duena ikaslearen aurretiko ezagutzak kontuan hartu behar direla, ikasi beharreko eduki berriarekin loturak sortzeko. Edota adierazten duena ikasleak e-

Zientifikoa denean baka-
rrik etor gaitezke denok
bat, baina ezin dezakegu
“estetika” alde batera


utzi; hau da,
irakaskuntzaren
funtzio soziala,
hezkuntzaren
xedeak, irteera-
profila, edota,

gauza bera dena, zer
ikasle-mota prestatu nahi
dugun.

duki berriaren alde motibatu behar di-
rela, aurrera egiten ari direla sentiaraz-
teko moduko jarduerak eginez. Edota
dioena irakaskuntzak urrats txikiak e-
manez egin behar duela aurrera gara-
pen hurbileko eremuan, gabeziarik ez
sortzeko. Edota adierazten duena ira-
katsi nahi ditugun eduki guztiek ikasle-
entzat zentzua eduki behar dutela, ikas-
leek eduki horiek zertarako balio duten
jakin behar dutela; hau da, esangurat-
suak eta funtzionalak izan behar dute-

Gure ustez, eta erabat ziur gaude
horretaz, mende honetan neurri handi
batean gaindituko dugu paradigmatan

teoriko identifikatuz jardun hori egokia
den ala ez zehazteak ere, funtsezko al-
daketa ekarri du orain arte erabili izan



oinarritutako ezagutza, erreferentzia
teorikoak baititugu hezkuntza-jarduna
aztertzeko eta oinarri zientifikoko zen-
bait neurri hartzeko. Zenbait ikerketak
-psikologiatik datozenek, besteak beste-
nahikoa datu fidagarriak eta kon-
trastatuak ematen dizkigute, identifi-
katzeko zer ezaugarri eta irizpide izan
behar dituzten irakaskuntza- eta ikas-
kuntza-jarduerak, ezarritako helbu-
ruak lortzeko modukoak izan daitezten.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-pro-
zesuak hainbat korrontek aztertu dituz-
ten arren (kognitibismoak, konduktis-
moak, konstruktibismoak...), badira
une honetan ikaskuntza-prozesuen al-
derdi askori buruzko zenbait akordio,
esplizituak edo ez, irizpide eta jarraibi-


diren azterketa-ereduetan.

Ikusi dugunez, errealitatea konple-
xua da, eta konplexutasun hori guztia
hartu behar da kontuan, bi erreferent-
ziak erabiliz hezkuntza-proiektuak
eraikitzeko, bai eta irakaskuntza- eta
ikas-kuntza-prozesuak kudeatzeko
nahiz hobetzeko eta hezkuntzaren be-
netako kalitatea garatzeko ere.

Horrenbestez, jardun profesional
bat baloratu eta hobetu nahi badugu,
ezin izango dugu ez unibertsalki egin,
ez emaitzetan bakarrik oinarrituta, eba-
luazio estandarizatuak proposatzen di-
guten bezala, besteak beste ikasleek
hezkuntza bukatu arte itxaron beharko
genukeelako, eta ez genukeelako gure
jarduna zuzentzeko astirik izango. Ba-
lorazioak neurri-eragina izan behar du,
eta prozesuetan ere oinarritua, eta kon-
tuan hartu behar ditu bai kulturari lotu-
tako baldintzatzaileak, bai irakaskunt-
zarako konpetentziak, bai baliabideak,
bai eta hezkuntza-erakundearen tes-
tuingurua bera ere, hartara urratsez ur-
rats aurrera egin ahal izateko.

Laburbilduz, hezkuntzaren alorre-
an hori lortuko bada, bi hauetan oina-
rrituta eraiki behar dira irizpideak eta
adierazleak: **(a) hezkuntzaren xedeak
(erakundeak bere ikasleentzat nahi
duena, hezkuntza-aldia bukatzen dute-
nerako), eta (b) gizakiok nola ikusten
dugun azaltzen duten printzipio psiko-
pedagogikoak.** ●

*Oharra: Federico Malpicak Ikas-
tolen elkartearen XVIII. Jardunaldi
Pedagogikoetan parte hartu zuen*



la.
Gaur egun ez al dago nahikoa eza-
gutza, irakaskuntzak eduki beharreko
ezaugarri edo baldintzei buruzko zen-
bait adierazle identifikatzeko?

deak ezartzeko aukera ematen digute-
nak, hezkuntza-jarduna aztertzeko.

Hezkuntza-jardunari buruzko az-
terketa honek, bai eta bi erreferentzia

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urria

berriak

XII. hik hasi Udako Topaketak



Uztailero bezala, aurren ere egin ziren XII. Hik Hasi Udako Topaketak. Ohi denez, HIKHASIk eta EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak antolatu dituzte elkarrekin. Berrikuntza gisa, Topaketetan Foro bat egin zen, Hezkuntzaren etorkizunaz hausnartzen aritu zena. Bestalde, Donostiako Santo Tomas lizeoan egin dira; ikastaro guztiak, bat izan ezik.

Hasierako ekitaldian, Marije Uranga psikologoa eta psikomotrizista omendu genuen. Izan ere, elkarrekin aritu gara hainbat urtetan aldizkarian, jardunaldietan, Topaketetan eta abarretan. De-

non esker handienak berarentzat!

Hogei ikastaro egin dira: euskara ebaluatzeko probak, ipuinak, gure adimenaren gainekoak, ez dut zigortu nahi, familia eta irakasleria, dibortzioa eta eskola, coaching, maskaragintza, autismoa, bideoa, irudien trataera, Web 2.0, psikomotrizitatea, haurrentzako masajea, yoga, jolasak, kantuak, antzerkia eta abar.

Topaketetan bildutako indarrari segida emateko, datozen hilabeteetan Hik Hasi egitasmoaren inguruan lanean arituko diren hainbat lan talde sortu dira. Animatu zu ere eta izena eman!



HH eta LHko irakasleentzako GITARRA ikastaroa



Hirugarren urtez, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan arituko diren irakasleentzako **gitarra ikastaroa** antolatu du **Xirula Mirulak**.

Asmoa, ezertxo ere ez dakiten irakasleekin hastea da. Helburua, ikastaro amaieran, eskola giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoi gitarraz laguntzeko gai izatea da.

Noiz: **ostiraletan**, urriaren 21ean hasita.

Ordua: 18:00 - 19:15.

Argibideak: 943 46 35 55 edota xirula@euskalnet.net

Helbidea: Catalina Erauso, 12 (Amara auzoa). DONOSTIA.

X. Psikomotritate jardunaldiak



Bergarako Psikomotritate taldeak antolatuta, azaroaren 4an, 5ean eta 6an Gasteizko Europa jauregian egingo dira **X. Psikomotritate praktikari buruzko jardunaldiak**.

Hizlariak halako azalpenak egingo dituzte:

? *Jose Angel Rodriguez* psikomotritzista. “Gaur egungo gorputzen ondoezak” eta “Haurren ondoezak antzemateko eta aurrea hartzeko adierazleak”.

? *Sabine Michiels* fisioterapeuta. “Tonua, pertsonaren eraikuntzaren azpiko erakuslea”.

? *Myrtha Hebe Chockler* psikomotritzista. “Mugimenduaren sorburua eta subjektibotasuna eraikitzean duen garrantzia”.

Horiez gain, ikuskizunak, mahai-inguruak eta abar egingo dira.

Creanova 2011

Sormena eta ikaskuntza: etorkizuna diseinatzen



Urriaren 7an eta 8an *Creanova* Biltzarra izango da Bilbon. Creanova Europar Proiektuko amaierako biltzarra izango da, eta, elkarre gisa, lehen.

Lehen eguna Bizkaia Aretoan izango da, Euskal Herriko Unibertsitateko eraikin berrian, Guggenheim Bilbao museotik oso gertu, eta bereziki alderdi teorikoen gainekoa izango da.

Bigarren eguna Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa izango da eta programa

praktikoagoa aurkezten da.

Aldaketa garai honetan, sormena nola landu gaia hartuta, hainbat hizlari izango dira Bilbon: Yrjo Engestrom, Yves Punie, Frances Scott, Carlos González Tardón, Maruja Gutiérrez-Díaz eta Jim Devine, besteen artean.

Biltzarrean parte hartzeko sarrera behar da. **Informazio gehiago:**

alberto.letona@gmail.com

HIBFren VIII. Biltzarra



Urriaren 7an eta 8an, Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioak antolatutako jardunaldiak izango dira Bilboko Deustuko unibertsitatean. Hitzaldi eta hizlarien artean, hauek daude:

- Daniel Wilson: “Pentsamendua ikusgarri egin. Pentsamenduaren errutinak”.

- Roger Schank: “Ekinez ulertu”.

- Patricia Leon: “Ulermena heziketaren funtsa”.

- Robert Swartz: “Ulermenerako ikaskuntza. Thinking-Based Teaching”.

Biltzarrean bertan, HIBFk bere bigarren hezkuntza saria emango du.

Informazio

gehiago:

Elikaduraz eta Eskolaz Larrabetzun

Larrabetzuko Herri-Eskolak, EHNE Bizkaiak eta Euskal Herriak bere eskolak antolatuta, elikadura, osasuna, kalitatea, eskolako jantokien kudeaketa-ereduak, bertako produktuak merkaturatzeko aukerak, baserrien etorkizuna, tokiko ekonomia eta elikadura burujabetza gaiak jorratu zituzten, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez behartu zituen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola publikoetako jantokiak kudeaketa zuzenera pasatzea; hau da, eskoletako jantoki zerbitzua catering bidez betetzera. Hainbat eskolek ez zuten dekretua bete, tartean Larrabetzuko, eta beste eredu bat garatzen ari dira.

Larrabetzuko esperientzia plazaratzeaz gain, elikadura burujabeak osasunean eta tokiko ekonomian duen eraginaz aritu ziren. Gure ikasleen osasunerako funtsezkoa baita zer jaten duten eta elikagai horiek non eta nola ekoiztu diren jakitea. Informazio gehiago: www.larrabetzukoeskola.org/elikadura/



Kulturartekotasuna: herria, hizkuntza eta hezkuntza EMUNen eskutik



EMUN lan mundua euskalduntzeko kooperatibak EMUN immigrazioa zerbitzua zabaldu du. Hura ezagutzeko jardunaldiak antolatu zituen. Helburua, etorkinekin lan egiten duten profesionali egunerokoan hobetzen, berritzen eta indartzen laguntzea zen.

Bertan izan ziren *Plataforma per la Llenguako* Carmen Perez; Garrotxako hiritartasun eta immigrazio saileko ar-

duradun Xavier Casademonte; eta Jose Manuel Palacios, Gasteizko Berritzeguneko. Gainera, Mario Humberto Calixtok eta Oriol Amorosek, hitzaldiak eskaini zituzten.

Nola landu daiteke arlo bat ikasleek ez badituzte eskolako hizkuntza/k menderatzen? izan zen hausnarketarako gaietako bat. Informazio gehiago: www.immigrazioa.com

Nagore, genero indarkeriaren aurka egiteko material didaktikoa

Nagore Laffage 2008ko San Fermin jaietan eraila izan zen. Kasuaren gora-beherek oso ezaguna egin dute.

Gertaera hori eta bere ingurukoak oinarritzat hartuta, material didaktikoa argitaratu dute hezkuntzan berdintasunaren eta genero indarkeriaren aurka gaiak lantzeko.

Materiala, *Nagore* izeneko doku-

mentalak eta gida liburu batek osatzen dute, eta biak Elena Taberna zinemagilearen zuzendaritzapean ekoiztitakoak dira.

Gida liburuak bost gai nagusi lantzen ditu: generoaren araberako analisi, emakumeen aurkako indarkeria, analisi juridikoa, linguistikoa eta filmikoa. Dokumentala oinarritzat hartuta,

Laffageren hilketa aztertzen da atal bakoitzaren ikuspegitik.

Gida liburuak, oro har, hezkuntzan erabiltzeko egin dago. Euskaraz eta gaztelaniaz banatuko da eta Astelehen Lilak berdintasunaren aldeko ekimena arduratuko da materiala eskola guztietan hedatzeaz. Gainera, liburu-dendentan eta sarean ere salduko dute.



Hezkuntza afektibo-sexuala

Gehitu (+tu) elkarteak antolatuta, urriaren 15ean goizeko 9:30ean hasita, bere V. jardunaldiak egingo dira Donostiako San Patricio ikastetxean.

“Gure ikasleen jarrera ikasgelako lgtb errealitatearen aurrean” izenburua daradate aurten jardunaldiek.

Besteen artean, Mercedes Sánchez eta Jose Joaquin Alvarez de la Roza ma-

drildarrek hitz egingo dute.

Informazio gehiago: 943 468 516 telefono zenbakian edo bdb@gehitu.org helbidean jaso liteke.

Izena emateko: infasis@gehitu.org edo 943 468 516 telefonora deituta egin liteke.

Urtero gisa, bazkaria ere antolatzen dute, matrikula eta bazkaria 20 euro tan.

Euskal Herriko Baliabide Pedagogikoen GIDA

hik hasi

EUSKAL HERRIKO
BALIABIDE
PEDAGOGIKOEN 8.



2011ko udazkena



Hainbat jarduera prestatzeko aukera eskainiko dizu

www.hikhasi.com

hh
hik hasi



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> Hamaika buruhauste izaten ditugu eguneroko jardunean. Haien artean, geroz eta ozenago eta bazter gehiagotatik, kezka nagusi bat zabaltzen ari da lau haizetara. Gure arreta bereganatu du kezka eta hausnarketa laguntze aldera jarri nahi izan dugu hemen gure ale. Galdera bota dugu eta hona zure irakurleek zer esan diguten: *Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak?*

> Planteatutako galdera dela eta...

Ezer erantzuten hasi baino lehen, Hik HASikoek eztabaidagunera ekarri duten galderari buruz zer edo zer esan nahi nuke, iruditzen baitzait, ezer erantzuten hasi aurretik, zer galdetzen zaigun ongi ulertu behar genukeela.

"Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak?", galdetzen digute Hik Hasikoek. Zeri egiten dio erreferentzia "hezi" horrek? Instrukzioari? Heziketari oro har? Estimatu nuke galdera gehixeago zehaztea; izan ere, "hezi" horri ematen zaion esanahiaren arabera, erantzun diferenteak emango nituzke nik behinik behin. Alegia, galdera balitz, "Nola irakatsi behar diegu hurrengo belaunaldiei?", kontu batzuk esango nituzke; aldiz, galdera balitz, "Nolako pertsonak nahi ditugu hurrengo belaunaldietan?", beste kontu batzuk esango nituzke.

Hala eta guztiz ere, egia ere bada, bai, bi galderak bata bestearekin oso lotuta daudela. Beraz, eztabaidagunea martxan jartze aldera, baieztapen hau egingo nuke: "KONPETENTZIETAN OINARRITUAKO HEZKUNTZA" DA MARTXAN JARRI BEHAR DUGUNA. BA ALDAKIGU, ORDEA, HORI NOLA EGITEN DEN? HORREN ZER-NOLAKO INPLIKAZIO PSIKOPEDAGOGIKO DITUEN? NON GELDITZEN DA KONSTRUKTIBISMOA? BATERAGARRIAK OTE?

zer dio herriak? *Aritz.*

> Kontu merkeak

Heztea eta irakastea ez al dira gauza bera? Niri ez zait iruditzen bi kontzeptu horien artean omen dauden aldeez hainbeste hausnartu beharrik dagoenik. Kontu merkeak alde batera utzi, eta hitz egin dezagun seriooki:

Irakasle-ikasle arteko rolak aldatu ezean, posible al da ikasleak kompetentzien arabera heztea/instruitzea? Horiek aldatzen ez diren artean, posible al da hezkuntza eraldatzea? *Iker.*

> Pedagogia edo didaktika

Ba al dago alderik pedagogia eta didaktikaren artean? Ba, horixe, alde hori bera ikusten dut heziketaren eta irakaskuntzaren artean. *Marisa.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak? galdera bera mantenduko dugu.

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Jakingarriak

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA,
HUHEZI


Uztailekoak osatzen du *Jakingarriak* aldizkariaren 69. zenbakia. Ale horretan, umeen tratu txarrak gaia jorratu dute honokoeek: Alexander Muela, Amaia Arrieta, Nora Amiano, Agustín Linazasoro, Nekane Balluerka eta Irantzu Del Portillo. •



Posta tigrearentzat

Jan Osch
PAMIELA

Berezkoa duen moldearekin, bai literaturaren arloan bai arlo artistikoan, samurtasunez beteriko marrazki eta biletekin, Janoschek irudikatzen du nola istorio bitxi honetako protagonistek lurreko posta, aireko posta eta telefonoa asmatu zituzten. Adiskidetasuna eta komunikazioa gai nagusitzat du eta egokia da 7 urtetik aurrerako haurrentzat. •



Nur eta alfombra hegalaria

Toti Martínez de Lezea / JL Landa
EREIN

Nur Damaskora, Siriako hiriburura, doa oraingo honetan bere gurasoekin. Nurren aita han jaioa da, eta urte luzeak eman ditu hara itzuli gabe. Hiri zaharretan kaleetan ibiliz, zokoan sartuko dira, azoka tradizional handian; gozoki, urrin, xaboi eta janari-gozagarrien artean..., alfombra-denda misterioitsu, magiko bat aurkituko dute Nurrek eta bere lehengusuek. 9 urtetik aurrera. •



Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi

Myriam Cameros-Nunila López
TXAPALAPARTA

Moderno, errealista, dibertigarria eta bihotz-altxagarria da Mari Zipriztinen istorioa. Testuen ironia eta irudien indar eta adierazkortasuna emakumea eta gizarte-arrakasta lotzen dituzten estereotipoak hankaz gora jartzeko tresna ezin hobea dira. •



Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak

Patxi Petirena
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

EIMA programaren ildotik, atalka atontzen ari diren Estilo Liburuaren zazpigarrena da hau.

Zuzentasunari eta egokitasunari gehiago begiratzen dion liburukiaren xedea erabat praktikoa da. Adibide zehatzez hornitua. •



Azazkalak jaten ditut, eta zer?

Ana Urkiza
ELKAR

“Eta zer?” bildumaren ezaugarria da desberdintasunak onartzea eta baloratzea; konplexuak eta marjinazioak gainditzeko modua, hemen, istorio dibertigarri bat da, azazkalak jaten dituen pintore batek bere haurtzaroari buruz kontatzen diguna. •

... nora joango gara?

Barandiaran Museoa: Euskal Herriko ondare materiala eta immateriala ezagutzuz

“Sagarrondo horiek lezio handia ematen zigutek: zama handiago, orduan eta apalago”. Jose Migel Barandiarani amak irakatsitako lezioak egiten dio ongietorria haren izena eta izana jaso nahi dituen museoan sartzen denari. Euskal Herriak hainbeste zor dion etnografo eta antropologoaren bizitza eta lana ezagutzeko funtsezko leku bilakatu da, Larruntza errotan, Ataungo San Gregorio auzoan.

Lan mardula egin zuen Barandiaranek (Ataun, San Gregorio, 1889-1991) bere herritik hasi eta Euskal Herri osoko kondaira mitologikoak jasotzen, arkeologia-indusketak egiten edo azterketa etnografikoetan. Atalka bereizirik, lan horien guztien emaitzak ikus daitezke museoan.

Museoan barreneko ibilbidea goiko solairutik zein behekotik has daiteke. Behekoa 1928an Barandiaranek berak egindako filmazio argitaragabeekin hasten da. Filmazio horietan, anartean Ataunen bizirik zirauten jardun magikoen berri ematen zaigu, Ataungo antropologoa Euskal Herrian aitzindari izan baitzen ondare immateriala jasotzen. Baina, gaur egun ezagutzen dugun ondare materialaren zati handi bat ere Barandiaranen lanari esker ezagutzen dugu, Euskal Herriko hainbat az-



tarnategi ere hark aurkitu eta induskatu baitzitu. Ondare materiala eta immateriala eskutik helduta joan ziren Barandiaranen ibilbidean, eta halaxe doaz museoan barrena ere; izan ere, historiaurreko trikuharriak aztertzen ari zela entzun zuen lehen aldiz, artzain baten ahotik, jentilen akabera adierazten zuen Kixmiren kontakizuna.

Barandiaranek Aralarren hasi zuen bere ibilbide arkeologikoa, 1916an. Gainera, mendikate horixe da Euskal Herriko megalitoetan oparoenetakoa, guztira 60 trikuharri, 8 zutari, 7 tumulu eta 2 harrespil baitaude inguru horretan gaur egun, Gipuzkoa eta Nafarroako lurretan barreiatuta. Museoak trikuharri horietan barrena hegaldi birtuala egiteko aukera ematen du, eta, horrez gain, Lizarrustiko parketxearen bidez,



ibilaldia lur gainean bertan egiteko aukera dute bisitariak ondoren.

Mitologia apur bat ikusi eta megalitoetan zeharreko ibilbide birtuala egin ostean, Barandiaranen garaiko indusketa arkeologiko baten erreplika dugu ikusgai. Museoan mapa batek erakusten digunez, Barandiaranek, Karrantzatik Donibane Garaziraino, Euskal Herri osoan aurkitu edo induskatu zituen aztarna arkeologikoak, besteak beste, Abodin, Auritzen, Urbasan, Biaslerin, Deban, Oiartzunen, Saran, Kuartangon eta, noski, Ataunen. Indusketa horietan aurkitutako piezen faksimileak ere ikus daitezke museoan, Urtiaga-ko burezur bat, Zabalaitzeko aizkora bat, kanpai formako ontzi bat, aiztoak, Behe Paleolitoko piezak, arpoiak...

Goiko solairuak ikus-entzunezko

gela bat du, eta Barandiaranek idatzitako lanen berri ematen du. Megalito eta harpe ugaritan egiten zituen indusketak Barandiaranek, eta, aldiro, emaitzak argitaratu egiten zituen, beste ikertzaileen esku uzteko. Horri esker, haren lanari zor diogu euskal historiaurreaz dakiguna. 75 urtean 575 lan argitaratu zituen Barandiaranek. Bestetik, 15 minutuko ikus-entzunezkoak Barandiaranen bizitza eta ekarpena laburbiltzen ditu, haurtzaroaz dihardu, mitologia eta kristautasuna elkarri lotuta zeuden garaiaz; apaiztegiko urteez; Alemaniako ikasketez; Aranzadi eta Egurenekin igarotako lanaldiez...

1991n hil zen arte, egin zuen lan oparoaren esker ona eta aitortza ugari jaso zituen Barandiaranek, solairu horretan ikus daitekeen moduan.

Kultura, naturagune paregabearen erdian

Museoaren osagarri, Barandiaranen lanean sakontzeko aukera dago Joxe Martin Apalategi dokumentazio-zentroan. Horrez gain, Errotatxo zerrategia eta errota izan zena ere bisita ditzaizkete ikasleek. Herritarrek, gainera, hilean behin, igandez, errota abian jartzen dute, garai bateko lana ezagutarazteko.

Horrez gain, Ataunera joaten den bisitariak Barandiaranek egin zituen aurkikuntzak lekuan bertan ikusteko aukera du.

Lizarrustiko parketxean ekintzak egiteko aukera dute ikasleek zein bisitariak, lantegi, unitate didaktiko edo ibilbideen laguntzaz. Bisitariarentzat harreran-gunea, taberna, jatetxea, aterpetxea eta interpretazio-zentroa ditu. Zentroak hiru areto nagusi ditu: zentzumenak lantzen dituen gela, ibilbideei buruzkoa, eta gune ludikoa.

Barandiaran-Lizarrusti parketxe hedatuak heziketa-eskaintza zabala du, kultura eta natura lotzeko. Goiz bat, egun bat, bi egun edo hiru egun Ataunen igarotzeko heziketa-programak dituzte, Joxe Migel Barandiaranen lana, Aralarko mitologia, kultura-ondarea, ekosistema eta abeltzaintza ezagutzeko parada eskaintzen dutenak. •

www.gipuzkoamendizmendi.com

JM BARANDIARAN MUSEOA:

Larruntza errota, San Gregorio (Ataun).

Tel.: 943 18 03 35

943 67 02-49

barandiaran@gipuzkoamendizmendi.net

LIZARRUSTI PARKETXEA:

Lizarrusti gaina (Ataun). 943 18 03 35.

Lizarrusti@gipuzkoamendizmendi.net



Heziketa-eskaintza:

• Goiz bat Ataunen

Aralarko mitologia eta Joxe Migel Barandiaran: LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. Joxe Migel jaio zen etxea eta ondoren bizi izan zen Sara etxea ezagutu ahal izango dira, Ataunen zehar ibilaldia eginez. Barandiaran Museora bisita eta unitate didaktikoaren lanketa ere sartzeko dira.

• Goiz bat Aralarko Parke Naturalean

Aralarko ekosistema ezagutzeko parada ematen du LHko 2. eta 3. ziklotako ikasleentzat, DBHkoentzat eta Batxilergokoentzat egitasmo horrek. Lizarrusti-Lareo-Lizarrusti ibilaldiaren bidez, biodibertsitatea eta geologia sakonago ezagutuko dira, horretarako prestaturiko unitate didaktikoa landuz.

• Egun bat Ataunen

Aralarko kultura-ondarea ezagutzeko aukera ematen die LHko 2. eta 3. ziklotako ikasleei, DBHkoiei eta Batxilergokoiei. Goiz bat Ataunen programaren ostean, arratsaldean, Errotatxo errota eta zerrategia ikusi ahal izango dira, eta indusketa arkeologikoan eta labar artean aritzeko lantegia ere egin dezakete ikasleek.

• Egun bat Aralarko Parke Naturalean

Parke naturalean barrena egingo den ibilbidearen bidez, LHko 2. eta 3. ziklotako ikasleek, DBHkoek eta Batxilergokoek megalitoei eta abeltzaintzari buruzko unitate didaktikoa landu dezakete; eta, horren ondoren, Lizarrustiko interpretazio-zentroa ikus dezakete.

• Bi eta hiru eguneko irteerak

Barandiaran Museora bisita, Ataunen barrena egingo den ibilaldi mitologikoa, indusketa arkeologikoari buruzko lantegia, labar arteko lantegia, unitate didaktikoak, Aralarko Parke Naturalean barrena egingo diren ibilaldiak eta basoan eta parketxean egingo diren jolas eta lantegiak bateratuta, bizpahiru eguneko irteerak antolatzen dituzte Barandiaran Museoak eta Lizarrustiko parketxeak, otorduak eta lo parketxean egiteko aukera baitago.



atzeko atetik



Reyes ILINTXETA

IRRATI ESATARIA

“Colegio Nacional José Vila Marqués”, halaxe zuen izena nire eskolak. Iruñeko Arrosadia auzoko ikastetxe publikoetarik, gure etxetik gertuen zegoena zen eta hori izan zen, hain zuzen, gurasoek gu hara bidaltzeko arrazoia.

Lehenbiziko eskola egunean, 1972ko irail urrun hartan, harrigarria iruditu zitzaidan zenbat jende zegoen gelan. Neskatiko-mutiko pila. Binaka eseri behar izan genuen aulki txiki haie-tan. Segituan andereño zahar-zahar bat etorri zen lauki berdedun bata batekin, “laseñorita humbelina” zen. Ordurako 80 urte edo 90 urte izanen zituen, edo hori iruditu zitzaidan niri, bederen. Gure osaba batek irri egiten zuen andere-

Joan den mendeko oroitzapenak

ño zahar-zaharrak genituela kontatzen genionean. Egia esan, eskolan bat baino gehiago ziren adinean oso aurreratuak zeudenak. Gizonezko irakasleen artean bazegoen, bestalde, nahiko zabaldua zegoen beste ezaugarri bat: askok elbarritasunen edo orbanen bat bazuten. Klemente jauna maingua zen. On Jesusek masailean tiro batek egini-ko zulo sakona zeukan... gerrako “herentziak”, nonbait.

Francoren garaian hasi nintzen ni eskolan, eta noiz edo noiz otoitz egiten genuen gelan, baina ez genuen ereser-kerik abesten eta, egia esan, ez dut oroimenean aparteko diziplinarik edo giro hertsirik. Irakasle zahar, eta askotan maitagarri, horiekin batera gazte asko ere bagenituen “Pepe Vila”n. Oso atseginak ziren, langile amorratuak, gelak ilusioz eta alaitasunez betetzen zituzte-nak. Eskola berria egiteko ahalegin horretan, ingelesa eta yoga, adibidez, eka-rriz zuten laster gurera.

Ezin da ukatu gure eskolan irakasle batzuk egurra banatzen zutela ausarki. Bosgarren mailan izan genuen On

Josék, esate baterako. Zorionez, muti-lak baizik ez zituen jotzen, eta bereziki ikasle txarrak zirenak. Beraz, neska ikastunak oso ongi bizi ginen gelako gure bizpahiru lerrotako paradisu txiki hartan.

Eskolan bikain pasatzen nuen nik eta klaseak bukatuta denbora aski izaten genuen. Sadar erreka ertzera askaltzera joateko edo karrikan jolasean ibiltzeko. Etxe ondoko parke batean orduak eta orduak pasatzen genituen. Garai hartan zegoen arrisku bakarra zabuetatik edo txirristatik erortzea zen, eta hala gertatuz gero, “mikromina” eman eta aire! Burdinezko tramankulu haien usaina oraindik ere eskuetan dudala iruditzen zait. Gogoratzen dut gure parke gogokoena Santa Cecilia plaza zegoela eta hango etxabe batean ikastetxe berezi bat bazela. Hango haurrak tarteka jolastera ateratzen ziren. Arraroak ziren, baina nik orduan ez nekien zergatik. Gerora jakin nuen arrazoia: Iruñeko lehen ikastolako umeak ziren eta “en vasco” ikasten zuten. Nola aldatu diren garaiak, zorionez.



“Nafarroako Gobernuak, 3.000 milioi euro xahutu beharko luke Tuter eta Gipuzkoa arteko tren lasterra egiteko, alegia, hezkuntzarako bost urteko aurrekontua adina”.

Iñaki Petxarroman.

Hainbat adinetako haurrentzat prestatutako ipuin kontaketa dramatizatua

JOSEBA SARRIONANDIaren
“**Idazlea zeu zara, irakurtzen
duzulako**” **liburuko ipuinak**
eskoletara eramateko prest.

BI IKUSKIZUN MOTA:

***5-6-7-8 urtekoentzat**

(Aktoreak: Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo)

***9-10-11-12 urtekoentzat**

(Aktoreak: Ander Lipus eta Miren Tirapu)

Informazio gehiago:

Xabino Alkorta (+34) 615 779 511
info@artedrama.com
www.artedrama.com

Egitasmoaren sustatzaileak:

Artedrama eta
Dejabu Panpin laborategia



Hainbat eskolatan lantzen ari den
hausnarketa sustatzen duen liburua.



Argazkiak: Kanboko Errobi ikastolan egindako saioak





Berria New



**Grapho
Planeta**



**Ikono
Planeta**



**Mito
Planeta**



Ekin... Sortu!

KOSMODISEA

**Konpetentziak
garatuz**

JARRERA EKINTZAILEA SUSTATUZ.

**Developing
competences**

PROMOTING THE SENSE OF INITIATIVE

Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Heziketa Zikloetara zuzendutako ekimen honek, jarrera ekintzailearekin eta digitalarekin bat datozen konpetentziak talde lanaren bitartez sustatzea eta Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilera bultzatzea ditu helburu nagusiak.

JARRERA EKINTZAILEA

Gaur egungo gizartean jarrera ekintzaileak garrantzia handia du, esparru guztietan: Sormena, autokonfiantza, ekimena, malgutasuna, talde-lana, tolerantzia, analisiarako gaitasuna, ahalegina, kritikarako gaitasuna, nahimen-kemena, lidergoa, hutsegitearekiko tolerantzia, gatazkei aurre egiteko gaitasuna, gizartearekiko erantzukizuna bezalako balioak eta bestelako trebetasunak funtsezkoak dira ezagutzaren gizartean eta Kosmodiseak, talde-lanaren laguntzaz, balio eta trebetasun horiek bultzatzen ditu.

IKT TRESNAK

Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak erabiliaz trebetasun eta konpetentzia digitalak landuko dituzte Wikian talde lanaren nondik norakoak azalduko dira. Blogetan egiten diren lanak argitaratuko dira bideo, argazki eta ahotza editatzeko programekin. Eta simulatzailearekin dibertituko dira.

900 840 842 www.kosmodisea.net info@kosmodisea.net